

# ttiipi-ttapa

233. zenbakia • 1998ko uztailak 2 • XVII. urtea



## Trikiti eta pandero doinuak nonahi



'Infernuko auspoa' gure inguruan moda-modan dago. Bera, Lesaka, Sunbilla, Donamaria, Leitza eta Goizuetako eskolatan ehundaka ikasle ari dira trikitixa eta panderoa jotzen ikasten. Eskualdeko trikitilari txapelketa ere jokoan da, eta Arizkun eta Doneztebeko kanporaketan ondotik, igande honetan izanen da finala Lesakan. Jone Elgorriaga antolatzailearen erranetan, «bertako trikitilarietara plaza eratzeko aukera bat eman nahi izan zaie, ez daitez

*Uztailaren 5ean, arratseko Setatik aitzinera, jokatu da Lesakan Baxtan-Malerreka-Bidasoa aldeko lehen trikitilari txapelketaren finala*

*beti lau paretan barrenean ikasten eta jotzen egon». Sei urteotan Lesakako trikitixa eskolaren ardura dauka Jonek eta aurten Donamarian ere hasia da. «Nafarroan orain hasi da afizioa sortzen» dio.*

3

**4 Erreportaia: Nafarroako Landa Etxeen Federazioa kolokan**

**27 Kultura: Eskualdera etorri dira literatur eta antzerki lehiaketako sari aunitz**

**28 Kirola: "Espainiako txapelketan podiuma lortzeko aukera dut"**

Horrela uste du Aitor Mariezkurrena. Beintza-Labaiengo atletak, Nafarroako jabalina jaurtiketa txapelketan irabazle suertatu ondotik.

**TTIPI-TTAPA honekin batera: Lesakako Sanferminak gehigarria**



# *Sanfermin zoriontsuak opa dizkizuegu*



## DATUAK.....

❖ Lehen aldiz jokatzen ari den Baztan-Malerreka-Bidasoa aldeko trikitixa txapelketaren antolatzailea da Jone Elgorriaga.

❖ Arizkun eta Doneztebeko kanporaketa saioen ondotik, igande honetan, uztailak 5, arratseko 8etatik aitzinera jokatuko da finala Lesakan.

❖ Azken sei urteotan Lesakako trikitixa eskolako irakaslea da. Orain Donamarian ere badu eskola.

❖ Aurten Nafarroako txapelketarik eginen ez bada ere, azken bi urteotan txapelduna izana da Jone, iaz Joxe Mari anaiarekin eta orain bi urte Iزارo Ansa aranoarrarekin.

TESTUA ETA ARGAZKIA:  
AITOR AROZENA

👉 **Jone ELGORRIAGA** *Lesakako trikitilaria*

## “Trikitilari gazteak lau paretetatik ateratzeko antolatu da txapelketa”

### NOLA GOGORATU ZITZAIZUEN ESQUALDEKO TRIKITIXA TXAPELKETA ANTOLATZEA?

Gure asmoa inguru honetan trikitixa bultzatzea da eta bertako trikitilarietara plazaratzeko aukera bat ematea, ez daitezen beti lau paretetan barrenean ikasten eta jotzen egon. Ikasleak aunitz motibatzen dira honelako txapelketetan. Eskualdeko eskola guzietako trikitilariak gonbidatuak zeuden, baina badirudi ez dela denen gustokoa izan. Hasieran hamabortz bikotek eman zuten izena, gero hamabira jautsi ziren eta hamekak hasi dute txapelketa. Horren gibelean norbait badela uste dut.

### NONGO BIKOTEAK ARI DIRA TXAPELKETAN?

Gehien bat Bidasoaldekoak ari dira. Baztango bikoterik ez dago. Leitzatik heldu dira, Goizuetakoak ere bai, baina gehienak Bortzirriak eta Malerrekoak dira.

### EPAIMAHAIA NORTZUK OSATUKO DUTE?

Tolosako Txema Garces eta Bergarako Manu Iztueta, biek ere adituak. Nafarroako txapelketan egonkatu dira, Azpeitiako lehiaketan...

### ZU ZEONE, TRIKITIXA IRAKASLE BEZALA ARI ZARA. ZENBAT IKASLE DITUZU?

👉 *“Iaz zenbait kritika izan zituen Nafarroako txapelketak, puntuazioa dela-eta. Agian horretaz aspertuta erabaki dute aurten ez egitea.”*



«Nafarroan orain hasi da afizioa sortzen eta txapelketak badu horretan eraginik»

Lesakako eskolan 50 bat ari dira, 5-6 urtetik hasi eta 18 urte artekoak. Trikitixa eta panderoa erakusten dugu Joseba Iparragirre eta nik. Josebak aurrez aurre erakusten du, paperarekin ikasi eta gero gehiago ikasi nahi dutenentzat. Ahotsa lantzen ere saiatzen gara, kantu zaharrak ikasi bidenabarrean tonua hartu... Aurten, gainera, Donama-

rian ere sortu dugu eskola eta inguru horretako hogeitak hamar ari dira. Hagitz gustora gabiltza.

### IRAKASLE IZAN BAINO LEHEN IKASLEA ERE IZANEN ZINEN... NOR IZAN DUZU MAISU?

Lesakan Laura Apeztegiarekin hasi nintzen eta gero Irunen Karmele Arruti eta Joseba Iparragirre. Nere gisara ere zerbaitek ikasi dut.

### TRIKITIXA MODAN DAGOELA ERRATEN AHAL DA?

Gipuzkoan beti egon da Nafarroan baino afi-

zio gehiago eta trikitilari onak ere han daude. Nafarroan orain hasi da afizioa sortzen eta Nafarroako txapelketa antolatzeak badu horretan zerikusirik.

### AURTEN, HALERE, EZ DA TXAPELKETARIK IZANEN. ZERGATIK?

Aurten, txapelketaren orde, Trikitilarien Eguna ospatu da igande honetan Barañainen. Iaz zenbait kritika izan zituen txapelketak, puntuazioa dela-eta. Agian, antolatzaileak horretaz aspertuta erabaki dute aurten ez egitea.

 **Juan Martin ALEMAN** Hiruak Bat elkarteko lehendakaria. Amaiurtarra.

«Zenbaitek ez du ikusten Federazioari ordaindutako kuotaren etekinik



*Haren funtzionamenduarekin soberra ados ez zeundetela-eta Nafarroako Landa Etxeen Federazioa sei hilabetez gelditzea erabaki zenuten azken batzarrean. Zertan da afera? Momentuan geldi-geldi dago dena.*

*Guri utzi digute federazioaren ardurara, asoziazioetako presidentei. Nik uste eurek franko galduak zeudela azkenean.*

*Jendea ez zen soberra ados federazioari pagatu beharreko*

*kuotekin, ezta?*

Zenbaitek ez du ikusten ordainduko kuota horren etekinik. Kuota Elkarteari, bertze bat Partzuergoari, bertzea Federazioari pagatzen zela. Kontsozioa eta Hiruak Batekoa k... ta normaltsuak dira, baina Federazioari kuota altua da eta jendea izitu e... da. Alde batetik kuota horiek de... eta bertetik inpostuak eta IVAk... historiak... azkenean diru pila ba...

*Eta, nor izan da kaltetuena?*

Nekazariarentzat hori are makurra

# Nafarroako landa etxeen federazioa, kolokan

**Landa Etxeen Nafarroako Federazioa 6 hilabetez egonen da geldirik. Urria bitartean, asoziazio desberdinetako lehendakariak hartuko dute beren gain federazioaren ardura, eta uda ondoren erabakiko dute zer egin: federazioaren irizpideak egokitu eta aitzinera segi, edo guztiz desagertarazi. Gaur egun, eskualdeko landa etxe aunitzek ez du Federazioarekin inolako loturarik, ordaindu beharreko kuotak garestiegiak direla-eta. Oraingo baldintzetan, bertzalde, ia planteaezina da turismoa baserriko ekonomiaren osagarri gisa. Landa etxeak dituzten banaka batzuk baino ez dira baserriak bizi.**

TESTUA: ASIER GOGORZA  
ARGAZKIAK: KARMELE TOLOSA

**B**aztan, Malerreka eta Bortziriak landa etxe gehienak Hiruak Bat elkartearen barrinean biltzen dira; 74, denetara. Elkarteko kideak noizean behin juntatzen dira bakoitzaren kezka agertu eta esperientziak elkartrukatzeko. Hala ere, gure eskualde-

an ugari dira elkartetik kanpo funtzionatzen duten landa etxeak. Izan ere, federazioari ordaindu beharreko kuota altuak direla-eta, aunitzek federaziotik ateratzea nahiago izan zuten garai batean, eta orduan automatikoki gelditu ziren elkartetik kanpo. Hiruak Bat elkarteko presidentek, Juan Martin Alemanek berak aitortu digu ez da-

goela alde handirik federazioaren kide izatetik ez izatera: «*Nehorrek ere, nahiz Hiruak Baten barrinean egon, iduritzen zait elkartetik kanpo daudenek guk bezalatsu lan egin dutela jendearekin, eta kuotarik pagatu gabe*». Etxalarako Pablo Danboriena, berriz, federaziotik aparte ari da lanean, eta amaiurtarraren iritzia beretsukoa da.



adibidez, jubilatutako batentzat baino. Aristarekin dagoen denboran nekazariaren lanetik egunean honenbera ordu sakrifikatzen baitu. Dagoeneko arrot irabazi eskas baten barrenean baldin badago, kuotekin kasik bategabek geldituko litzateke.

**«Erdian, gero eta nekazari guttiago dago landa etxeen gibelean...»**

ai, gaur egun nekazaria franko guttiartzen da Landa Etxeen aferan, eta da sartuko aunitz gehiago. Izan ere, gaur artean franko kompetentzia polita badugu. Nola dena librea den, eta nekazariarekin konparatuz nahiko inbentzioa den jendea ere badagoen, horietan ez dute nahi kompetentzia sarritan inola ere.

Bere ustez, «ez du horrenberterik abantailarik federazioaren barrenean egoteak. Nere anaiak ere badu etxe txiki bat, eta bera bai, federazioaren sartuadago». Nahiz eta federazioaren ez pagatu, gobernuari urteko diru bat ordaintzen dio Pablok, eta Herriko Etxeari bertez bat. Etxalarren bertan 13 landa etxe daude gaur egun. Landa turismoa osasun onean dagoela erakusten du horrek. «Etxalarren turistak ibiltzen dira fuerte, baina ez dago kompetentziarik gure artean», dio Mokorreko bordako nagusiak.

**Aurtengo udan ere betekada espero dute**

Aurtengo udarako ere, ikaragarritzko betekada espero da etxe guzietan. Batez ere trankil egon nahi duen jendea etortzen omen da inguru hartara. Jende adintu samarra normalki. Madril eta Katalunia aldetik

Landa etxeak denetara.....	127
Asoziatuak.....	74
Ohe kopurua eskualde osoan.....	695

gehienbat. Hala ere, publikizadetan saiakera haundirik ez dutela egiten onartzen dute landa etxeetako jabeek. «Denadela, gu zonalde pribilegiatu batean bizirik gara, berde-berdea, hondartza, mendia eta denetik duena, eta horregatik etortzen da jendea. Baina ez promozione ona egiten delako».

Horrela mintzatu zaitugu Sagrario Goñi beratarra, Hiruak Bateko lehen-dakariordea. Olaneneko bordakoaren ustez, ateratzen zaiona baino probetxua gehiago ateratzen ahal zaio landa turismoari, batez ere herrian bertan. «Aktibitateak edo ibilaldiak antolatuta, ez dakit... koordinazio pixkot falta da, nik uste». Herriko Etxeek zentzu honetan deus gutti egiten dutela dio, eta elkarlana falta dela onartzen du;

«egia da landa etxeetako ere ez dugula astirik hartu Herriko Etxearengana joan eta gauzak proposatzeko».

**Landa etxe edo nekazal etxe**

Landa etxeen apostu nagusia kalitatean dagoela uste du bereatar honek. Bezeroari eskaintzen zaiona

ahalik eta modu argienean erakustea garrantzi handikoa da, bere idurikoz. Horretarako, egitazko nekazal etxeen eta landa etxeen arteko bereizketa egin behar omen da. Gauregun, izan ere, baserria ogibide nagusizat dute etxeak eta landa etxe soilak, denak zaku berean sartuak baitaude. «Nik uste kontu horretan norberaren teiltura botatzen ditugula harriak. Landa-etxeetako erraten dugu gure etxeak ez direla nekazal-etxeak». Bere erranetan, azkeneko edukia ere z

izatean datza diferentzia hori, eta baita nekazari lanetik bizi diren edo ez. «Ni harro egonen nintzateke azkeneko izanen banitu, baina ez ditut. Horregatik desberdindu nahi nituzke landa-etxe eta nekazal-etxeak. Guretzako, gobernuarentzako eta batez ere turistentzako». Turistek beti galdetzen omen diote etxeen animaliak ote dituen. «Herriko haur batzuk ez dute ahuntz bat sekulan ikusi, eta oilasko bat margotzen hasi eta oilasko erreka egiten dute beti». Nekazal etxeen jabeak, ordea, ez omen dira arrontean ados bereizketa horrekin. «Eurek landa-etxeak direla diote, ez dute erran nahi izaten azkeneko dituztenik».

**Administrazioak ez du esku hartu nahi**

Gisa honetan, nekazariak ateratzen dira galtzen, denborarekin gero eta kompetentzia gehiago baitute inguruan. Izan ere, gaur egun nahi duen guztiak paratzen ahal du landa etxea, kuotak eta baldintza minimo batzuk bete ezker. Horrela, hasieran landa etxearen filosofia zena hausten ari da, Juan Martin amaiurtarraren erantziz: «Nekazal turismoa sortu zenean, zonaldeko baserriarren errenten osagarri izateko bezala planteatu zen, euren bizibidean laguntzeko. Baina errealitatean bertze bide bat segitu du nekazal turismoak. Ez dago inolako limitaziorik, irekia dago denentzat». Gainera, administrazioek ez du afera horretan esku hartzeko imintziorik ere egiten. Juan Martinek dioenez, «Administrazioak, araudia egokitu beharrean, zonaldeetatik dirua sartu dadila begiratzen dute bakarrik». ■



**«Ni harro egonen nintzateke azkeneko izanen banitu, baina ez ditut. Horregatik desberdindu nahi nituzke landa etxe eta nekazal etxeak. Guretzako, gobernuarentzako eta batez ere turistentzako».**



**«Barrantxea I» landa etxea, Arizkun.**

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85  
FRANKEO ITUNDUA: 34/79  
TIRADA: 6.800 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa: 948 63 11 88

Faxa: 948 63 12 91

Internet:

http://www.jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa

e-mail:

ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com

uzendaria: Aitor Arozena. Pu-

lizitate: Miren Karnele Tolo-

na. Erredakzioa: Aitor Arozena,

Asier Gogorza, Joxemanuel Iri-

oi. Administrazioa: Amaia

ioia. Erredakzio taldea: Pello

pezetxea, Juainas Paul, Bitto-

Telletxea. Berriemaileak: Jose-

a Azpiroz, Esteban Arozena,

Juana Mari Saizar, Ainhoa Mu-

ñerria, Iban Isasi, Patxi Iriarte,

Patxi Otxandorena, Jaione O-

txandorena, Alba Fernandez, Pa-

lo Mendiburu, Joseba Igarabi-

e, Franc Dolosor, Margari Etxe-

ke, Koro Irazoki, Mixel Geren-

tain, Jacqueline, Elixabet Iturri-

Garbiñe Maiz, Oskar Txope-

na, Pello Apezetxea, Aitor Aro-

ena, Asier Gogorza.

olaboratzaileak: EHNE Nafa-

oa, Txema Aldabe, Mikel Bezu-

arte, Joxe Javier Etxeberria...

primategia: Gertu.

ptipi-ttapak ez du bere gain har-

en derrigorrez, aldizkarian adie-

zitateko erranen eta eritzien eran-

ukizunik.

akunde Laguntzaileak: Be-

l, Leitza, Goizueta, Areso, Baz-

an, Urdazubi, Zugarramurdi eta

arako udalak, Bortziritako Eus-

ara Mankomunitatea, Malerre-

ako Zerbitzu Mankomunitatea,

Zugarramurdiko Akelarre Elkar-

ra...



ttipi-ttapa  
fundazioak  
Europako  
Batzordearen  
dirulaguntza  
jaso du

Aldizkari honek Nafarroako  
Gobernuaren laguntza jaso du

## GAURKOTASUNeko GAIA

### Atzerrira bidaiak

**Gure intzertzioa itsasoko marrazo-baleak ikustea zen, Darwin irlan**



Patxi IRIARTE  
Doneztebe

Urtero egiten du-  
gu bakarren bat,  
baina beti itsaso-  
an buzeatzea iza-  
ten da lehenbiziko gauza. Hor-  
ren inguruan planteatzen ditu-  
gu bidaiak. Iazko azaroan egin  
genuen azken kruzeroa, Ekua-  
dor aldera, hain zuzen Galapa-  
go arkipelago famatueta. He-  
mendik bi lagun joan ginen, ber-  
tze lau madrildarrekin batera.  
Gero iparramerikarrak baziren  
bertze sei bat lagun itsasontzian.  
Ekonomikoki hau izandu da bi-  
dairik sufrutuena.  
Gure intzertzioa itsasoko marra-  
zo-baleak ikustea zen, Darwin  
irlan. Ur korranteak ez genituen  
alde izan, ordea, eta bat bakarra  
ikusitako ahal izan genuen, 7 me-  
troko kumea. Bertzenaz, mailu  
buruko marrazoak, itsas-lehoiak  
eta pinguinoak ikusi genituen  
itsasoan, eta lurtean, berriz, igua-  
nak kriston pila badira, eta dorto-  
ka zaharrak ere bai. 400 urteko  
bat ikusi genuen. Hoberena da  
hango animaliak ez direla jen-  
dearekin batera ikaritzen.  
Bertzalde, irla haietan ez da ka-  
sik jenderik, hiru tokietan baka-  
rrik bizi dira. Hango jendea ha-  
gitz ona eta umila da, hegoo-  
merikako toki gehienetan beza-  
latsu. Langile normal batek 5 edo  
10 mila pezetako soldata du han.

**"Paulina" hurakan famatuaren ihesi ibili ginen Mexikon**



Angel MANERU  
lesaka

Iazko irailean jo-  
an ginen Garesko  
lagun bat eta biok  
Guatemalara, eta  
gero handik Mejikora sartu gin-  
en eguraldi beroaren bila. Bai-  
na han "Paulina" hurakan fama-  
tuak harrapatu gintuen, eta ha-  
ren eskapo joaki ginela sartu gin-  
en Mexiko D.F.ra. Bertan jende-  
a idekiagoa da Guatemalan bai-  
no, kultura gehiago dute, komu-  
nikabideen eraginez batez ere.  
Hango jendea maitagarria da be-  
netan, eta hagitz lasai bizi dire-  
la egia da. Denda batetara sartu  
eta segidan erraten dizute eser-  
tzeko: "vamos a platicar". Nik  
aunitz maite dut hitzegitea, eta  
orduak ematen nituen solasean.  
Pazifikoko aldera ere, Chacagua  
izeneko herri batera joan ginen,  
turistek hagitz bakan bisitatzen  
dutena. Bertan aintzinako eskla-  
bu beltzen ondorengoak bizi dira,  
camarón deitzen dioten langos-  
tino gisako baten arrantzatik.  
Hura izan zen dudarik gabe Me-  
xikotik ekarri dudana oroitza-  
penik ederrena, eta noizbait itzul-  
tzeko esperantza badut.  
Guk ez genuen diru aunitz gas-  
tatu, merkatuetan jaten genuela-  
ko, hangoek bezala. Denetara,  
abioia eta hango egonaldia  
225.000 pezetagatik ateratzaiz-  
dan gutti goiti beheiti.

**Hura paradisiakoa zen, pelikuletan bezalakoa: hondartza xuriak, palmerak...**



Rosa AMIANO  
Elizondo

Duela hiru hilabe-  
te joan ginen Tai-  
landiara ezkon-bi-  
daiari. Bidaia oso  
luzea da; 15 ordu hegazkinean.  
Lehenbiziko Bangkok-en egon-  
du ginen, hiriburuan, eta gero  
irla batera joan ginen. Hura  
pelikuletan bezalakoa zen, pa-  
radisiakoa; hondartza xuriak,  
palmerak...  
Hango beroaz oroitzen naiz au-  
niz, 40 gradutan geunden egune-  
ro. Han hiru urtaro dituzte lau  
beharrean; euria, beroa eta bero  
gehiegi. Nik uste dut gu bero so-  
bera egiten zuzenean joan ginela.  
Egunez beldurgarria zen, eta  
gauetz ere ez zuen sobera frekta-  
tzen. Erran zigutenez, abenduan  
dago giroa hobereana.  
Bertzela arras ongi prestatua da-  
go, oso eleganteak dira hotelak-  
eta. Erratan dute "irriaren her-  
rialdea" dela, eta egia da. Beti  
etortzen zaizkizu irria ezpain-  
tan, oso majoa da jendea. Bert-  
zalde, auzo guzietan badute Bu-  
da bat, gizon itxurako eraikun-  
tza haundi bat, eserita dagoena.  
Ispiritu txarrak uxatzeko, lorez  
beteta izaten dute beti. Jasminak  
dira, oso ederrak.  
Gu hegoaldean egondu ginen,  
hondartzak-eta dauden tokian,  
baina noizbait bueltatu nahi dut  
eta iparralde bisitatu.

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

• Asteleheneetik asteazkeneira 9-13tara eta 16-20tara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

### BURLATA:

ARTEKARI, S.L., ☎ 948133328 • 133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☎ Langile Autonomoak
- ☎ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☎ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☎ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☎ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☎ Diru-laguntza ezberdinak
- ☎ Kontabilitateak
- ☎ IVA eta IRPF
- ☎ Errenta aitopenak
- ☎ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☎ Bideragarritasun planak

### Eta leitzar gazteentzat zer?

Gauza jakina da Leitzako herriko gazteok elkartzeko ditugun aukerak ez direla taberna eta kirol-guneetatik kanpo iristen. Gazteon arteko harremana oso ahula delakoan gaude, baina garbi dago ez dugula gure arteko erlazioa suspertzeari, ez eta guri, zuzenki antolatutako ekintzak prestatzeko biderik, gaur egun. Horregatik, eta horri irtenbidea emateko lanean hasi asmoz, "Irauli Gazte Asanbla" bilerak egiten aritu da azken urte honetan. Honen bidez, gazteak bildu eta eritziak elkarbanatu ditugu, eta lokal bat, hau da, gazteon beharrak (komunikazioa, arazoak, aisialdia, etab.) asetzeko bide izango den elkargune bat hasiera egokiena litzatekeela pentsatzera iritsi gara.

Lokal honi funtzio soziokulturala emango litzaike: gai ezberdinen inguruko eztabaidak, hitzaldiak, tailer didaktikoak (ikastaroak etab.), irteerak, afariak, gazte olinpiadak, kontzertuak, eta abar bezalako ekintza entretenigarri nahiz interesgarriak.

Guzti hau dela eta "Irauli"-k udaltxearen azpiko solairuak (Telefonicaren zatia ez ezik) ematen dituen aukerak aztertu eta baldintzak betetzen dituela ikusita, udaltxeare eskaria luzatu dio, ekaineko plenoan erantzuna jasotzearen zain geratuz.

Plenoa iritsi artean, autoprestaketa gisa, ekintza batzuk eraman dira aurrera, esate baterako, beste gaztetxeetako ordezkarri batzuen funtzionamendu on bati buruzko hitzaldia.

Honenbestez, hau guztia jakinarazi eta gainontzeko herriar gazteei ostiralero 9etako bileretara gonbidapena luzatuz agurtzen gara.

### "La Miguel Indurain"

Azkeneko zazpi urteotan C.C. Beratarra delakoak, hau da, Berako txirrindularien elkartek, "La Miguel Indurain" ibilaldia antolatu izan du.

Aurten ere, elkarre horrek dagoeneko banatuak ditugun ibilaldi horren informazioa ematen duten foilletok. Halere, foilletohoretan datorren informazio gehiena gaztelania husez dago eta laburpenak, berriz, frantsesez. Beraz, euskara, bertako hizkuntza, erabat baztertua gelditu da. Bistan da, euskararen egoera hobetzea nahi baldin badugu eta gure helburua euskararen normalizazioa baldin bada, hagitz inportantea dela gisa horretako argitalpenak euskaraz egitea. Are gehiago, euskaldunei eta bertako herritarrei zor zaien errespetuagatik, antolatzaileek argitalpen hori euskaraz egin beharko lukeela iruditzen zaigu.

Agian aurtengo ibilaldirako beranduegi izanen da, baina gutxienez, hemendik aitzinera gisa honetako ibilaldiak, lasterketak edo bertzelako jarduerak antolatzen direnean euskarari bere lekua egin diezaioten eskatu nahi diegu. Jakin dezatela, aldi berean, elkartean euskarazko testuak prestatuko dituenik ez badago, Bortziritako Euskaraz Zerbitzuak horretarako behar duten laguntza tekniko emanen diela.

Gainera, aurtengo edizioari begira, publizitatea egina dagoen arren, bertzelako dokumentuak (ibilaldiaren eguneko erabiliko diren kartel, panel, dorsal eta diplomak...) garaiz egonez gero euskaraz egin beharko lirarteke. Modu berean, egun horretan megafonia bidezko azalpenak, aurkezpenak eta gisa-koak ere euskaraz egin beharko lirartekeela uste dugu.

### Haritschelar jauna, hau ustekabea!

Euskaltzaindiaren Lehendakariak nola utz dezake bere izena euskara instrumentaltzatzeke? Nola erabiltzen ahal da euskara hizkuntzarenak ez diren interesak defendatzeko? Ziur aski ezjakintasunagatik. Bortziritako euskararen irakaskuntza nola dagoen ez dakielako. Ez du ezagutzen, egiaren erdia bakarrik luzatu diotelako. Badaki Institutuak Saran euskarazko klaseak eman dituela ikasturte honetan? Eta hurrengoan ematen jarraituko duela? Ziur aski, Bortziritan euskaraz irakasten duen ikas-

tetxerik ez dagoela pentsatuz sinatu duzu, sinatu berri duzun idazkia. Edo agian, hemengo ikasle kopurua izugarri handia izanik euskaltzaindik tokirik gabe gelditzen direlakoan.

Ez Haritschelar jauna, hori ez da horrela. Bortziritan euskaraz ikas daiteke eta ikasten da Nafar Gobernuak ordaindutako Ikastetxe publikoetan, dohainik gainera. Kontutan hartzekoa ere, Bortziri mailan, kurtso bakoitzean, batz bestea, 60 ikasle baino gehiago ez dagoela. Ikasle horrekin erranen diguzu nola eskaintzen ahal diren bi ikastetxe desberdinetan (batak, gainera, lege baldintzak betetzen ez dituen) talde espezifikoko, aukerazkoak, hezkuntza aukerak, LOGSEri esker eskain daitezkeenak. Posible ez denez, batzuk ez diete gurasoei informazio osoa ematen, legeari funtsa kentzen diote, euskara monopolizatzen dute eta batez ere, barruti osoko ikasle euskalduna kaltetzen dute.

Ez, Haritschelar jauna, ez! Hemen Nafar Gobernuak ez dauka euskararen kontra planteamendu sistematiko eta erasokorra (ekainaren 6ko Egin egunkarian ageri denez).

Hor ez dago koska ez. Arazoa bestelakoa da. Gai honetaz zure hizkuntzarekiko maitasunaz, asmo eta izen onez baliatu direlakoan gaudenez, informazio zuzena eta sakona jasotzera gonbidatzen zaitugu.

BERAKO TOKI ONA B.H.I.KO  
ZUZENDARITZA TALDEA



### "Boikota ote" galderari erantzuna ikastolako gurasoen aldetik:

Lerro hauen bitartez Labiaga Ikastolako DBH 4. maila-

ko ikasleen gurasook J.M. Irazoki Toki Ona Institutuko zuzendariak, bere zuzendaritza taldeak lagunduta, plazaratu duen balizko boikotaren salaketaren hariari eutsi behar diogu.

Lehenik eta behin, erran beharra dugu faltsua dela arrondtean ikastolak inongo boikota bulkatu duenik aipaturiko Institutuan gure seme-alabak matrikula ez ditzagun. Areago, baieztatzen ahal dugu, batetik, 4. maila honetan burutu den orientabide planaren barrenean Toki Onako eskaintzari buruzko informazioa eman eta banatu egin dela eta, bertetik, martxoaren 31ean Toki Onan bertan egin zen bileraren gonbidapena gure seme-alaben tutorearen esku hartu genuela. Bilera honetan, bertzeak bertze, informazio gehiago nahi genuen ikastolako gurasook, ikastolako DBHko 4. mailako tutoreak eta Toki Onako zuzendaritza taldeak hartu zuten parte (talde hauxe da, hain zuzen, Jose Mari Irazoki buru duela egiantzeko gezur hau karrikaratu duena).

Azkenik, jakinarazi nahi dugu Institutuan egindako borts aurrematrikula ikastolan bezalaxe, Toki Onaren aukera hartu ez dugunok izan dugun motibazio bakarra momenturo eskaintza egokiena aukeratzeko gurasoen eskubidea izan dela.

Edozein gisatan, Toki Ona Institutuko zuzendaritzari erranen genioke ikastolak bulkatutako boikotarekin bazterrak nahastean hasi aitzin galde diezaiotela euren buruari eta ebalua dezatela ea zer dela eta izaten ahal den hainbertzetan aipaturiko euren matrikulazio eskasia.

LABIAGA IKASTOLAKO  
DBH 4. MAILAKO 20 IKASLEEN  
GURASOAK



### OHARRA:

*Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa**k bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*



**Maite BLANCO** Ricarco Baroja ikastetxeko zuzendaria

## Eskola publikoaren ikuspegia



**Az**alduko dizuet Bortziri-  
etako eskola publikoan  
aritzen garen  
batzuk Bortziri-  
etako ikastolen

egoerari buruz dugun ikus-  
puntua.

Garai batean Ikastolek eus-  
kararen alde egin zuten lana  
ukaezina da. Oraindik ere  
euskara-ikastolek binomio  
bat osatzen dute gizartean.  
Beste garai batean, zorionez,  
sare publikoan aritzen ziren  
zenbait irakaslek ere  
euskararen alde gogor  
eta gogotik lan egin  
zuten. Eta euren apos-  
tuari esker gaur egun  
eskola publikoak  
euskaldunak dira.

Gizarteak, berriz, ez  
du sobera baloratu lor-  
pen hau. Oraindik ere  
euskaltzaleon artean  
ikastolarekiko atxiki-  
mendua joera sarritan na-  
baria da. Sare publikoareki-  
ko aldiz, nolabaiteko mesfi-  
dantza dago: euskara ber-  
matuko ote duelakoaren  
kezka.

Jakin badakigu, eskolak eus-  
kaldundu badira ez dela izan  
administrazioak horrela nahi  
izan duelako, irakasle eta  
gurasek horren alde egin  
dutelako baizik. Eta euska-  
ren aldeko borrokan ohituta  
gauden lez, honetan ere,  
eskola publikoen euskaldun-  
tasunaren berma gu guzior  
gain dago.

Duela urte batzuk, Bortziri-  
etako ikastetxe guztiak bil-  
duta, proposamena egin zi-  
guten Toki-Ona institutoko  
zuzendariak: denok bat  
egitea zonaldeko proiektu  
amankomun batean. Alegia,  
Bortziri-  
etako ikasle guztiak

bilduko zituena eta eskain-  
tza zabala egiteko moduan  
egonen zena. Sortu behar  
zuen Derrigorrezko Bigar-  
ren Hezkuntza horren pro-  
iektu bat denon artean erai-  
ki. Zergatik ez?

Proposamen hori bertan gel-  
ditu zen. Ikastolek beren pro-  
iektu propioa nahiago izan  
zuten. Baina proposamena  
ez zen txarra, ez. Kontuan  
hartu beharrekoa nire ustez.  
Bortziri-  
etako ikasle guztiak  
elkartuz gero aukerako gaien  
eskaintza zabalagoa litzate-  
ke, baita bertan egin ahal

### Sortu behar zuen

### Derrigorrezko Bigarren

### Hezkuntza horren proiektu

### bat denon artean eraiki.

### Zergatik ez?

izango ziren batxilergoena  
ere, eta, ziur naiz, Lanbide  
Heziketan euskara hutsez  
emanen ziren moduluak sor-  
tzeke kopuru politik lortu-  
ko ziren. Eta bakoitzak har-  
rapa dezala bere erantzunki-  
zuna.

Guk nagusien artean, nahi-  
koa nahaste-borraste badu-  
gu ere, gure seme-alabent-  
zat egoera hobetzen saiatu  
beharko genuke. Ez al dugu  
bada euskaldunok gure hiz-  
kuntzaren egoera normali-  
zatu eta ditugun eskubide-  
ak erabili behar? Denok bat  
egingo bagenu, euskararen  
berma gure gain hartuko ge-  
nuk Euskal Eskola Publiko-  
aren alde urrats garrantzitsu  
bat emanez. Proposamen hu-  
ra ez zen gauzatu, baina ia-  
ia inoiz ez da berandu, bi-  
latuz gero izanen da modua.

**J.M. IRAZOKI** Toki Ona institutoko zuzendaria

## Labiaga ikastola eta euskarazko irakaskuntza



**A**gian, Bor-  
tziri-  
etako eus-  
karaz irakas-  
ten duen ikas-  
tetxerik ez  
dagoela pen-  
tsatzen duen  
horietako bat

zara. Agian, barruti honeta-  
ko populaketaren eskaerak  
bertako Institutuaren eskain-  
tzak ez dituela behar bezala  
betetzen pentsatzen duzu.  
Horrela bada, eta gaiaz on-  
gi jantzita hitzegin nahi ba-  
duzu, beharrezkoa egiten zai-  
zu ondoko lerroak irakur-  
tzea.

Toki Ona Institutuak  
gonbidatuta, 1991ko  
azaroaren 27an, Bor-  
tziri-  
etako ikastetxeak  
bildu ginen LOGSEK  
sortzen zuen mapa es-  
kolarra kontsentsua-  
tzeko asmoz. Otsaile-  
an egin zen bigarren  
bilera batetan, ikaste-  
txe bakoitzak propo-  
samen hura aztertu on-  
doren, Berako eta Le-  
sakako Ikastolek jaki-  
narazi ziguten beraiei  
ez zitzaizela interesa-  
tzen, beraien proiektu  
independentea eratu  
nahi zutelako.

Institutuak badauka  
 ekipamendu dotazio  
 osoa: polikiroldegia,  
 patioa, tailerrak, labo-  
 rategi desberdinak, in-  
 formatika, plastika,  
 musika, edizio, iku-  
 sentzun gelak, e.a.... eta gai-  
 nera D ereduko (euskaraz)  
 plazak bete gabe dauzka.  
 Bortziri-  
 etako ikasle goa, gu-  
 txi gora behara 60 ikasle kur-  
 tso bakoitzerako, bi ikaste-  
 txeetan banatzen bada, begi  
 bistakoa da ezin izanen di-  
 rela irakasketa osoak eman,  
 DBHn nahiz batxilergoetan.

Datorren urterako, Labiaga  
 Ikastolan DBHa bukatuko  
 duten 20 ikasleetatik Derrig-  
 orrezko ondorengo egite-  
 ko Institutuan 5ek bakarrik  
 izena men dute. Boikota ote?  
 Bestalde, Labiaga Ikastolak  
 dioenez legalizatua izateko  
 baldintza guztiak betetzen  
 omen ditu. Egia ote da? Le-  
 galizatuak izateko behar-be-  
 harrezkoak dituzten instala-  
 kuntzen jabeak direla edo  
 bestela haiek erabiltzeko es-  
 kubidea dutela aldarrikatu  
 nahi dute, baina hori ez da  
 horrela, adibide gisa aipa-  
 tzea.

### Bortziri- etako ikasle goa,

### gutxi gora behera

### 60 ikasle kurtso

### bakoitzerako,

### bi ikastetxeetan

### banatzen bada,

### begi bistakoa da

### ezin izanen direla

### ikasketa osoak eman,

### DBHn nahiz batxilergoan.

tzen dituzten ikastetxe pu-  
 blikoetako patioak.

Zuzen zuzenean eta infor-  
 mazio osoaz jabetzera gon-  
 bidatuta zaude, orain arte  
 arazoaren alde bat besterik  
 ikusteko aukerarik ez duzu-  
 la izan konbentziturik baikaude.



PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Egin, 98ko ekainaren 12a

«Ez baduzu komertzializatzeko sistema bat, plantazioek ez dute deustarako balio».

**Miel Mindegia**  
Kiwi Baztan enpresako fundatzailea eta gerentea  
Ardatza 98-VI-5

«Herriko Etxea ez da eriak atenditzeko tokirik egokiena, baina ezin izan dugu aurkitu herrian gure lana egiteko guttienezko baldintzak dituen bertze eraikuntzarik».

**Antonio Valderrabano**  
Berako medikua  
Diario de Noticias 98-VI-25

- ◆ **Aurtengo krosean nor izanen da lehendabiziko donoztebarra?**
- ❖ Ni, ateratzen banaiz... edo igual ez... seguraski ez.
- ◆ **Bueltatxo bat emateko... autoa edo mendiko bizikleta?**
- ❖ Beti mendiko bizikleta.
- ◆ **Eta besta egin behar bada?**
- ❖ Bizikleta ezta ukitu ere. Edaten baduzu ez gidatu.
- ◆ **Nora joanen zinateke oportretan?**
- ❖ Hemendik ateratzeagatik, edozein toki berritara.
- ◆ **Zein da gustokoen duzun jatekoa?**
- ❖ Urdaiazpikoa... "Katxo" ogiarekin.
- ◆ **Zein da zure ogiaren sekretua?**
- ❖ Maitasun haundiz lantzea.
- ◆ **Erreka lehendabiziko mailara goituko da?**
- ❖ Afizioak laguntzen badu, Jainkoak hala nahi badu eta Santuek errezatu ezkeru...
- ◆ **Zer nahiago duzu, Espainiak mundiala irabaztea edo Barçak liga?**
- ❖ Barçak liga irabaztea, dudarik gabe.
- ◆ **Nou Camp baino leku ederrago bat?**
- ❖ Ez dago halakorik mundu guzian.
- ◆ **Iñauteriak edo Sanpedroak?**
- ❖ Sanpedroak denaren gainetik.
- ◆ **Defini zaitetz hitz guttitan.**
- ❖ Mutil arrunt eta normal xamarra... baina Barçakoa, hori bai.



**Mayi RUIZ**  
DONEZTEBE  
Okina eta kirolaria



# Bidali TTIPI-TTAPA herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira. Eskatu informazioa.

**948 631188**

## Bertizko Partzuergoak urteko aurrekontua eta ekitaldiak onartu ditu

34 milioi pezeta kultura dinamizatzeko erabiliko dira

TTIPI-TTAPA

Bertizko Turismo Partzuergoak 60 milioi pezetatik goitiko aurrekontua izanen du aurten, ekainaren 16an izandako batzarrean onartu zenez. Kopuru honetatik, 11.475.000 pezeta gastu arruntan aurrekontuari dagokio (langileen gastuak, bulego gastuak, bidaia eta dietak) eta 48.700.000 pezeta, aparteko gastuen aurrekontuari.

Aparteko aurrekontu honetan, zatirik handiena dinamizazio kulturalaren egitarauari dagokio (34 milioi pezeta). Nora Eneterreaga, Partzuergoko gerentekak dioenez, «*udan egiten den Kultur'98rako bi milioi jartzen ditu Partzuergoak (gainerako dirua, Turismo Zerbitzuak, Kultura Departamenduak eta Cederna-Garalurrek jartzen dute). Erakunde ezberdinei ematen zaizkien dirulaguntzak ere hemen sartzen dira: la-xoa, UEMA, Elizondoko Udaberriko Kultur Ekintzak...*».



Kultur eta kirol ekitaldi ezberdinen bidez turismoa erakartzeko helburua izanen du uda honetan Bertizko Turismo Partzuergoak Artxibokoa

Aurten, gainera, proiektu garrantzitsu bat prestatu dute, ia 30 milioi pezetako aurrekontua daukana.

### FILME LABURREN NAZIOARTEKO LEHIAKETA

Bidasoako Jaialdiak izenburupean, kultur ekitaldi ezberdinak antolatuko dira. Honela, Bidasoako Filme Laburren Nazioarteko I. Lehiaketa antolatu da, Eneterreagaren ustez,

«*Espainia mailan potenteenetako bat izanen dena*». Musika etnikoa aditzeko aukera ere izanen da Mestizaje Kulturalaren Ihardunaldietan; Bertizko Aizkolarien txapelketa jokatu da eta erakusketa, kontzertuak eta bideo eta zine emanaldiak izanen dira.

Nafarroako Mendialdearen Proiektua aitzinera eramateko 5 milioi jarriko ditu Partzuergo-

ak. Izan ere, Bertizkoa, Pirinio eta Plazaolakoe-kin, Cederna-Garalur, Landa hotelen Asoziazioa eta Landa Etxeen Federazioarekin, Nafarroako Mendialdeko Turismorako Mahaia osatzen dute. «*Batera eramaten ahal diren proiektuetan elkar lan egiten dugu, bertzeak bertze, baliabideen datu-basean, Erreserba Zentruan eta kalitate plangintzan*» dio Bertizko ge-

renteak. Elkarteen proiektuetarako 3 milioi pezeta bideratuko dira eta publizitate eta promoziorako 4 milioi. Partzuergoaren eginbehar nagusietako bat turismoa erakartzea da eta aurten, dohainik emateko foileto bat egin behar da, batez ere ferierata eramateko eta horretan bi milioi pezeta gastatuko dira.

### NAFARROAKO GOBERNUAREN APORTAZIOA ETA MATERIAL SALMENTA

Diru-sarrerari dagokienez, handiena, 17 milioi, materialen ezberdinen salmentaren bidez (sarrerak, txiskeroak, kamisetak, foiletoak...) sartuko da Partzuergoaren kutxan. Nafarroako Gobernuak 16 milioi pezetako aportazioa egiten du, 5 milioi Cederna-Garalurrek eta bazkideek 7.550.000 pezeta ordainduko dute kuotetan. Bertzelako diru-sarretan, babesleek hamar milioi emanen duten hamar milioiak dira garrantzitsuenak.

**ROMANO PINTURAK**  
Barnealdeko dekorazioa, pirtura, papera, moketa, kautxo eta sintasola.  
☎ 948630941 • 948631137 • BERA

**SAROB**  
okindegia   
SANDERS Pentsuak  
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

**KRISTALDEGI ZERBITZUA ETXERA**  
(zonalde osoan)  
☎ 929 443 765 • BERA

**Dia**   
Autozerbitzua deskontua  
**Hamabostero ofertak**  
Zatoz eta ikusi  
Eztegara, 6  
☎ 948631403 • BERA

**Errekalde ostatua**  
Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak  
Tfnoa: 948630259 - BERA

**GRUPO ZURICH**   
ASEGURO OROKORRAK  
Itzea, 4 - BERA - ☎ 948 630763

# Gazte Jokoak uztaila hondarreko ilunabarretan egingen dira aurten

Uztailaren 3a baino lehen eman beharko da taldearen izena

**ASIER GOGORZA**

Bakarren batek gaur-gero galdemodu hau izanen zuen buruan bueltak: aurten ez ote da Gazte Jokorik egingen? Kezka izateko arrazoirik ez zuen falta, izan ere, ohi baino bi hilabete beranduago heldu zaizkigu oraingoan: uztailaren 19tik 28ra. Hala ere, esperatzeak merezi duela erran daiteke, antolatzaileek Gazte Joko indarberriak aurkeztu dizkigute eta. Aurten lema eta guzi asmatu dute: *Arratsero arrats-ero*.

Egitarauari begiratu, zenbait aldaketa nabarmen somatu daiteke segidan: Batetik, jokoak ilunabar aldera egingen direla, eta ez beti beza-

la asteburuetan, astetar-tean baizik, udako arratsalde aspergarriekin astindu bat emateko asmoz. Horrela, Ibardinen lanean ari direnek parte hartzen ahalko dute, indarrik gelditzen bazaie berederen. Bertzetik, betiko frogei konpetibitate gabe bi ekitaldi gehituko zaizkie aurten. Antolatzaileek ekitaldi idekiak deitu dituzte, eta nahi duen guzientzat zabalik egonen dira.

Apuntatzeko epea or-tzirial honetan bertan, itxiko da. Iamotenean egin beharko da izen-ematea, arratsaldeko 7etatik 9etara. Mugitu ipurdia, beraz. Hala ere, norbait berandu badabil, antolatzaileek gisa guzietako aitzakiak

onartuko dituztela erran digute.

Antolaketan inoiz baino jende gehiago aritu da aurten. Gure Txokoa eta Lamixinerekin batera, Bortzirietako Oinarrizko Zerbitzuen Mankomunidadea aritu da lanean, eta bertze zenbait talderen kolabora-

zioa izanen dute ekitaldietarako: Erausian, Larun Mendi Taldea, Agerra Mendi Taldea, Gazte Asanblada, eta baita Josu Goia eta Totonno ere. Bertzetik, laguntza ekonomikoa jasoko dute Berako Udaletik nola Bertizko Partzuergo Turistikotik.

NOIZ	ZER
Uztailak 19	INAUGURAZIOA
Uztailak 20	OHATZE LASTERKETA
Uztailak 21	ZINEMA PANTAILA ERRALDOIAN
Uztailak 22	GINKANA KULTURALA
Uztailak 23	ZABOR BILKETA
Uztailak 24	KONTRABANDO FROGA
Uztailak 26	BIDASOAKO JAITSIERA
Uztailak 27	ANTZERKIA
Uztailak 28	PISZIFROGA
Uztailak 29	ROCK TALDEAK
Uztailak 30	PARODIAK
Uztailak 31	AMAIERA ETA AFARIA



**Medikuaren kontsulta Herriko Etxean**

Osasun etxean egiten ari diren obrak direla-eta, egun hauetan Herriko Etxera ekarri dute medikuaren kontsulta. Aldaketa hau probisonala da, eta iraila edo urrirako espero dute lanak akituak izatea, berriz lehengora bueltatzeko. Telefonoak, hala ere, lehengo berberak dira.

IGERILEKUETAKO BONOAK			
	16 urtez goitikoek	10-16 urte	7-10 urte
Denboraldi guzirikoa	4.125	1.650	700
Hilabete baterako	3.300	1.200	650
Egun baterako	475	275	150

**flash**

**Sutea Funberan**

Funbera fabrikako bi makinek su hartu zuten joan den ekainaren 19an, gaueko txandan. Hala ere, langileek sua itzal-tzea lortu zuten azkenean.

**Bestetako argazkiak**

San Esteban bestak direla-eta TTIPI-TTAPAN argitaratuko den gehigarriak orerretro zaharrak edo bestetakoak badituzu eta uzteko prest bazaude-buel-tarekin, noski!- jar zaitez gurekin harremanetan, 948 631 188 telefonora deituz. Edo nahiago baduzu pasa zaitez Herriko Etxearen beheko solairuan dugun bulegotik.

**Matzadako**

Urbanizazioaren lanak hasiak dira dagoeneko. Bertalde, Altzateko saihes-bidearen proiektua ere aitzinera doa poliki-poliki.

**Pilota goxo**

txapelketako azken partidua ekainaren 27an jokatu ziren Eztegarapilotalekuan. Erran behar da arrakasta handia izan duela lehendabiziko edizio honek, 70 bikotek hartu baitute parte. Iamotenean egindako afari batekin ospatu zuten pilotari guzietan.

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutzogarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horrelaz. **Termita eta Polillen kontrako tratamendua**

**BERA DESINFECCIONES**  
 @ 948630155  
**BERA**

**OKANE**  
**HARATEGIA • URDAITEGIA**  
 Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

**LABEZAR**  
 @ 948631076 • BERA

**LESACA**

# Hirigintza Planaren behin-behineko onarpena ahobatez egin zuen Udalak

Hiltegiaren eta Alkaiagako aterabide berriak eskatu zituen HBk

AITOR AROZENA

Ekainaren 13an egin dako ez ohiko batzarraren ahobatez erabaki zuen udalak Hirigintza Plana behin-behineko onartzea. HBren ustez Plan hau «hasieran elitista» baldin bazen ere, «alde positiboak eta negatiboak balantzan jarri, onar daitekeela uste dugu». Udal-Planaren aurreko dokumentazio onartu zenetik aldaketa garrantzitsuak eman dira, HBren arabera. «Etxebizitza kolektiboen behararen aurrean soluziobideak ageri dira, Villa Isabel zonaldean Babes Ofizialeko Etxebizitzak aurrikusten baitira. Lokal publikoen beharra asetzeko ere toki nahikoa dagoela pentsa daiteke azken aldaketak ikusiz gero».

**HILTEGI ZAHARRA ETA ALKAIAGAKO ETXEBIZITZAK**

Dena den, HBk Planari egindako proposamenen artean, «hiltegi zaharrean etxebizitzak egin beharrean parke bilakatzea eta Alkaiagako industrialdean etxebizitzak ez egitea eta industria-eremu bezala uztea» zeuden.

Alkateak, bi aldaketa hauek onartzea momentu honetan ez dela posible erantzun zuen. «Hiltegiaren kasuan, ia dena propietate pribatua delako eta Alkaiagako kasuan bi arazori soluzioa emateko ideiarekin jarria delako: industrialde-




**Erretiratuen besta egin zen ekainaren 12an**

Aurten Urrezko Ezteiak ospatzen dituzten bi bikoteak —Agustin Irigoien eta Juana Iriarte, eta Saturnino Parra eta Justa Etxeberria— bertan egoterik izan ez bazuten ere, besta polita egin zuten ekainaren 12an Urrezko Adina elkartearen erretiratuek. Goizean txistularien doinuak eta Meza aditu ahal izan zuten. Bazkariaren aitzinetik Endika Mendegia ezpatadantziariak aurrerakua eskaini zuen eta, ondotik, Zeus taldearekin dantzan aritzeko gonbiteari ez zioten hutsik egin erretiratuek.

Argazkia: Aitor

an lan eginen duen jendeari Lesakan bertan etxebizitza eskaintzea eta urtetan eremu horren jabearekin Udalak dituen arazoak konpontzea, orain dauden eraikinak botaraziz eta hor dagoen tresneria kenduz». Alkatearen ustez, orain arte arazorik handiena etxebizitzaren zen eta hemendik aitzinera Lesakan eginen den etxea, %44a Babes Ofizialekoa izanen da. «Hau urrats handi bat da gazteek etxebizitza aisxeago hartu ahal izateko». Eraberean, puntu batzuk eztabaidatzea positiboa dela erran zuen, «honela, azken erredakzioa aberasten delako».



**Irain eskolako ikasleek sariak eskuratu dituzte 'Horroroskopolandia' antzeslanarengatik**

Patxi Saez irakasleak zuzendu eta Irain eskolako 6. mailako neska-mutikoez antzestutako 'Horroroskopolandia' lanak Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamenduari emandako bi sari eskuratu ditu: gidariaren originaltasunari eta janzkera onenari dagozkionak.

**Sanferminak TTIPI-TTAPA TELEBISTAN**

Aurtengoan Sanferminetako ekitaldi ezberdinak, eguneko irudiak, elkarrizketak eta bertzelako kontuak TTIPI-TTAPA telebistaren bidez ikusteko aukera izanen da. Ordu erdiko programa bereziak izanen dira, egunero, arratseko 9etan hasi eta hiru aldiz errepikatuko direnak: 9.30etan, 10etan eta biharamonean, eguerdiko 2etan. Badakizu, 49. kanalean dago ikusgai eta oraindik ez baduzu egoki ikusten, deitu antenna jartzaileari.

**Kalaxkak 25 urte bete ditu**

Duela pare bat urte Irrintzik egin zuen bezala, aurtengoan Kalaxka peñak mende laurdena beteko du eta horretarako ospakizun aipatuz antolatuko ditu. Sanfermin bezperan afaria egingen dute Xatur Etxean akordeolari baten laguntzaz. Peñen eguneko lanborradaren altxaferoa eta zuzendaritza Kalaxkako ena izanen da. Ezkonduen Egunean, arratsaldean joan-etorria egingen dute Mastegi sorora, Periko ta Pantaleon musikarekin eskundantzan, garai bateko ospakizuna gogoratu. Bertan fritada berrendu-afaria egingen dute eta Irrintzikoek ere gonbidatu dituzte.

Sanferminetako ekitaldien ondotik, urte bukaera bitarte bertze hainbat egingen dituzte, Madalenetan bazkaria, Igantziko festetan futbol partidak...

**ETXALAR**

# Lanpostu berriak sortzeko, lanaldia murriztearen alde agertu da Udala

Baita langileei oinarrizko soldata bat ematearen alde ere

PELLO APEZETXEA

ELA eta LAB sindikatuek eskatu bezala, lanaldia 35 ordura murrizteko galdeginen dio Udaltzat Nafarroako Legebiltzarrari. Hori, sektore pribatuko lan-tegietan; sektore publiko lantegietan, berriz, 32 ordura. Eskuera horrek lanpostu berriak sortzea bilatzen du. Lanik gabe daudenek oinarrizko soldata bat eskuratzeko eskaerarekin ere bat egin du, Legeak paratuta duen Guttieneko Soldataren parekoa.

## Larraburua elkarteak San Joan Xarrera bidaia

San Joan eguna dela eta, Larraburua Elkar-teak San Joan Xarrera joanaldia antolatu du, bigarren aldiz. Eguna betexeago izateko, ibilaldia luzatu egin du, Oiartzuna barrena.

## Igerilekuak biztu dira

Bizi laburra izaten



## Haurren Eguna

Eriaroaren 21ean betez, Haurren Egunerako pentsatutako ekitaldia. Haurrek idatzitako ipuinak entzun eta irakurri ahal izan genituen, haien eskulnakin ikusi ere bai. Plazan bazkaldu ondoren, pailazoan lanak ordu atseginak pasarazi zizkien haurrei eta helduei.



dute gure herrietan igerilekuek, arrunt atzenduak egoiten baitira urtearen gehiengan. Eriaroarekin hasten da

bertan jendearen joan-etorria, eta aurten ere hala izan da, eriaroaren 20an, xeheki. Beroa ere egun horietan etorri de-

nez, hasiera ona izan dute igerilekuek. Bertze urteetan bezala, igeritan ikasteko auker izanen da, horretarako ikas-

taroa ere antolatuko baita.

## Bortzirietan 1948an jaiotakoan elkartzea

Ekainaren 7an bildu ziren bazkaltzera Etxalarko Bentan. Aitzinetik, beraien arteko hildakoen aldeko meza izan zen Etxalarko elizan.

## Baztan-Malerreka-Bidasoa aldeko trikitilari txapelketa

Trikitilari gazteen txapelketan parte hartzen ari dira Argiñeneko Joseba eta Iriberriko Arantxa, elkarrekin, eta Errekondoko Nagore eta Santsiñeneko Bordako Izaskun, bakoitza bertze herriko lagunarekin.

## Nafar eskoletako literatur sariak Etxalarrera

Nafarroako DBHko 1. eta 2. mailan, poesiako sari nagusia eman diote Argiñeneko Josebari. Zumeldiko Iratik, berriz, 3. saria eraman du ipuinetan.

«USOA»  
NEKAZARI KOOPERATIBA  
Ganaduarentzat  
pentsurik egokiena  
Tfnoa: 948635214  
**ETXALAR**

**HERRIKO  
OSTATUA  
Jatetxea**  
© 948 635 290 **ETXALAR**

**ZALAIN**  
JATETXEA  
Zalain Auzoa  
© 948631106  
**BERA**  
EGUNEKO MENUA ETA KARTA  
**Boda eta banketeak ematen dira**

**ttipi-ttapa**  
**Ameriketara bidaltzea erdi prezioan gure bitartez**  
*Frankoo Kontzertatuari esker, errebista berbera guk bidalti ezker, zuk bidaltu baino erdi prezioa kostako zaizu.*  
Iparaldetik deitzeko 19-34-48-631188  
Hegoaldetik deitzeko 948-

**IGANTZI**

# Jendetza ikaragarria bildu zen San Joan Xar egunean

Biltoki Ttikiko lagunek jarri zuten kantina

JAIONE SEIN

Aurtengoan eguraldiak ez du huts egin San Joan egunean. Udako giroa izan genuen eta Meza Nagusia aditu ondotik herriko dantzariak prestatutako dantza saioa ikusteko aukera izan genuen bertara hurbildu ginenak.

Aipatzekoa da aurtengoan Igantziko Biltoki Ttikiko lagunak izan direla kantina paratu eta San Joan erroskilak saltzeko lanetan aritu direnak, azkeneko bi urtetan Igantziko Abesbatzako kideak izan baitziren antolatzailerak. Beraz, ur bedeinkatuz aparte bertzelako frexkagarriak hartzeko ere bazen aukera. Inguruko herrietatik eta urrunagotik ere –Oiarzun aldekoak, adibidez– hainbat jende hurbildu zen, meza



## Korpus eguneko prozesioa

Inguruko herrietan ez bezala, bete egin zen Igantzin Korpus eguneko prozesioaren erritua. Meza goiz xamar egin izanak eguerdiko euritik libre utzi zuten azken urteotan berreskuratutako ohitura

Argazkia: Oskar Txoperena

aditu, itturriko uretan oinak busti edo aspalidiko lagunak agurtzera. TTIPI-TTAPA TELEBISTAN ere ikusi ahal izan genuen egunari buruzko erreportai interesgarria.

## Igantziko Biltoki futbito taldea hagitz ongi Lesakako txapelketan

Igantziko futbito taldea hagitz ongi aritu da

Lesakan urtero antolatzen den futbito txapelketan. Lehen fasean beraien taldeko irabazleak gelditu ondotik, finalerdietara pasatzeko Etxalarko taldearen aur-

ka aritu ziren. Partidu hagitgogorra izan zen –etxalartarrak duela bi urte txapelkun eta iaz finalistak izan zirela erran behar da– baina azkenean penaltietara irabazi zuten. Finalerdiko partidua joan den San Joan egunean jokatuz zuten eta tantu batez (8-7) finalerako pasae lortu zuten. Larunbat honetan jokatzekoa da finala eta ikusiko da txapela Igantzira ekartzeko modua daukaten. Animo bada!

## Bestatako bilera ortzegun honetan eginen da

Bestak antolatzeko bilera ortzegun honetan (uztailak 2), arratsaldeko 8,30etan izanen da. Bilera idekia da eta aurtengo besta egitaraua prestatzen laguntzeko gogoia duen edonork parte hartzen ahal du.



**EKAITZA kafetegia**

**GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA**

**Lagunekin elkartzeko toki egokia**

Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**



LUNDI-MULTIPLIONES MECANICAS  
**BERRIZTUN S.L.**

Makinaria eraikuntza  
Moldaketak eta despiezea  
Mantenimendu mekanikoa  
Torno, fresadorak, errektifikadorak

Igantziko Bentak • ☎ 948627572 • Faxa: 948637313

**GOYA**

**JOSTAILUAK  
JANTZIAK  
OPARIAK  
ERREMINTAK**

Altzate, 5 • ☎ 948630083 BERA

## Toldos BAZTAN, S.L.

TOLDOEN SALMENTA, ALOKAIURUA ETA KONPONKETA

- Kamioi eta industri-furgoneten errotulazioa (Errotulazio zerbitzua)
- Etxerako toldoak, eguzkitik babesteko (manualak edo elektrikoak)
- Toldo korrederoak
- Bolketendako sareak
- Kamioiendako klase guzietako toldoak
- Piztina estaltzeko sareak
- Trinkajetarako Slingak

Alkaiaga industrialdea, Baldrun 8  
**LESAKA** (Zalain industrialdearen ondoan)



Tel. 948. 63 10 03  
Mug.: 929 01 59 23

## LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 948630735 • IRUN ☎ 943622305



## Elizatzte

**ERLOJUTEGI  
BITXITEGIA**

*Nafarrentzat  
prezio bereziak*

Landetxe Enparantza ☎ 943.492698 OIARTZUN

# Aurtengo ikasturtea akautu dute eskolako ikasleek

San Joan bezperan suaren gainetik saltoka aritu ziren

ELIXABET ETA GARBINE

Ekainaren 23an, San Joan bezperan, akautu zituzten herriko eskolan klaseak. Kurtso ezberdinetan egin dituzten eskurtsio eta bi daiekin eman diote bukaera aurtengo ikasturteari.

Kanpoan ikasten ari diren ikasleak berriz, azkeneko azterketak egin ari dira eta urtero gertatzen den bezala, nahiko nekatuak daude. Bertzalde, herrian urtero bezala San Juan bezperako suak egin zituzten eta haur aunitz aritu ziren, urteko gaurik laburrena ospatzen. Aterpeko barnetegian egun batzuk pasatzen ari diren Hendaia eta Urruñako haurrek ere, gau hori Arantzan ospatzeko aukera izan zuten.



**Aurtengo bestetarako entsaioak egiten hasiak dira gazteen eta haurren dantza taldeak.**

Artxibokoa

## Gazte Asanbladaren dantza taldea

Gazte Asanbladak antolatu berri duen dantza taldea dagoeneko hasia da entsaiatzen. Larunbat arratsaldero elkartzen diren hogei-

tabost-hogeita hamar gazteek dantza berriak ikastea dute helburu. Orain arteko herriko dantza zaharrak nahiko pobreak zirela eta, tikiak hasiak ziren bertze herrietako dantzak es-

kaintzen eta orain gazteek beraien dantzak prestatzen hasiak dira. Lehen saioa herriko bestetan, herri bazkariaren egunean eskainiko dute. Dantza irakasleak bertakoak dira, Nerea,

Amaia eta Amaia, eta Berako bertze gazte bat ere aritu omen da dantza berri batzuk erakusten.

Bertzalde, dantzari tikiak astegunez ere entsaiatzen hasiko dira, bestetako emanaldia prestatu asmoz.

## Intsumisioaren Aldeko bertso afaria

Bortzirietako Intsumisioaren Aldeko Taldeak antolatutako afarian 40-50 bat gazte bildu zen eta giro ezin hobean igaro zen gaua, Xabier Silveira eta Aitor Mendiluzeren bertsoek alaituta. Afaria hasi eta berehala, kazerolada egin zen herrian barna, Euskal presoak Euskal Herrira lemapean. Gero, trasteak utzi eta mahaian jarri ziren afaria bukatu eta bertsoak aditze-ko.



**MARTIKO**  
Gure baserrietako  
produktuak

© 948 630 700 • Fax 948 631 213  
Zalain Poligonoa, BERA



**PINTURAS DEL BIDASOA**

Barne eta kanpoaldeak  
Goteleak - Iztukadurak  
Lakatuak - Papereztatzeak  
Lucas Sansiñena 929-416768  
Jose Luis Macayo 970-655785

Aurrekontuak  
Loturirik gabe

Fotokopiak: txuri-beltzean  
eta koloretan  
Enkuadernazioak  
Kamisetak  
Plastifikazioak  
Plotter, Planoak...



F / O / T / O / K / O / P

San Juan Plaza ondoan  
Karrika Nagusia, 5 • Tel/Fax: 943 632211 • IRUN

**ETXANDI**  
**TXOKO**  
jatetxea

Bazkari, afari  
eta gosariak

ITUREN  
© 948 450 491

# Fonda ostatuko mus denboraldia akitu da aurtengoz

TTIPI-TTAPA TELEBISTA ikusten ahal da dagoeneko 21. kanalean

JAIONE ETA ALBA

Joan den urteko urrian hasi zen Fonda ostatuko mus txapelketa eta ekainaren 12an akitu zen. Ortziraleko gaueko bikote dexente bildu izan ditu eta denboraldi guztian lortutako puntuen arabera honela gelditu da sailkapena:

**Lehenengo saria:** Guillermo (Narbarte) eta Juanma (Mugairi).

**Bigarren saria:** Alberto (Doneztebe) eta Juan (Doneztebe).

**Hirugarren saria:** Pakita (Legasa) eta Juana Mari (Sunbilla).



Fondako txapelketako hiru lehendabiziko bikoteak beraien sariekin.

## TTIPI-TTAPA TELEBISTA Sunbillan ere

Dagoeneko ikusten ahal da TTIPI-TTAPA TELEBISTA Sunbillan, 21. kanalean, Herriko Etxeak antolatuta. Modu egokian ikusten ez baduzu, dei ezaiozu

teknikoari. Programazioari dagokionez, arratsko 8,30etan izaten da informatiboa, 9etan eta 9,30etan eta biharamonean, egueriko 2etan errepikatzen dena. Dagoeneko herriko irudiak agertu dira, joan

den astean igerilekuan egon baitziren.

## Eskolako hurrek hartu dituzte oporrak

Ekainaren 23an eman zioten akabaila aurtengo ikasturteari

Sunbillako eskolako hurrek eta, gau beretan, aitzineko egunetan bildutako kartoi multzoarekin izugarritzko sua egin zuten haundientzat eta bertze tikiago bat gaztetxoentzat.

## Bidasoako Jaialdiatarako kartel lehiaketa

Bertizko Turismo Partzuergoak Filme Laburren I. Zinemaldia iragarriko duen kartela argitaratu nahi du eta horretarako lehiaketa deia egin du. Lanak uztailearen 15a baino lehen aurkeztu behar dira Partzuergoaren bulegoan eta lehendabiziko saria 50.000 pezetakoa izanen da.

Kartelak, 50x40 zentimetroko kartulina edo paper lodian aurkeztu behar dira, norberak nahi duen teknika erabiliz. Hori bai, nahitaez agertu beharko da: I Certamen Internacional de Cortometrajes del Pais del Bidasoa/ Bidasoako Filme Laburren I. Lehiaketa.

Lanak, gisa honetako lehiaketetan ohikoa den modura aurkeztuko dira eta partehartzaile bakoitzak nahi adina lan aurkez ditzake. Lan guzietan erakusketa bat egiten da seguraski, filme lehiaketa ospatzen den bitartean.

**GAZTANDEGIA**

**LIZUN**

Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

**ttipi-ttapa internet**

helbide berriak

Internet: [jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa](http://jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa)  
E-mail: [ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com](mailto:ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com)

**APARAN, S. A.**  
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133  
948 451 541  
Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**FUNERARIA ZERBITZUAK**  
**DONEZTEBEN**

**MALDAERREKA, S.L.**

24 orduko zerbitzua  
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak  
Tfnoa: 948637404 • LESAKA  
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE



**DONEZTEBE**

# Adinekoei Egunez Zaintzeko Zentroa egiteko lehen pausua eman da

Arkupeak elkartearen bestan sinatu zuen Nafarroako Gobernuak aurreakordioa

PATXI IRIARTE

Arkupeak elkaratek bere 12. urteurrena ospatu zuen ekainaren 26an. Egun berezi horretan, gaur egun zaindutako etxebizitzak diren lekuan adinekoei Egunez Zaintzeko Zentroa egiteko lehen pausua eman zen. Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko lehendakariak eta Miguel San Miguel Donezteko alkateak lana hasteko aurreakordioa sinatu zuten. Izan ere, Arkupeak elkartearen aspaldiko helburua da Eguneko Zentro horren eraikitzea. Kontuan hartu behar da, gainera, Zaindutako Etxebizitzek ez dutela batera arrakastarik izan.

Ez zen hau eguneko akordio bakarra izan, Nafarroako Gobernuak bertze lokal bat utziko baitio Doneztebeko Udalarari. Beraz, Arkupeak elkartearen eguna besta giroan pasatu eta omenaldiak egiteaz gain, adinekoen eskariak bete ahal izateko ere aprobetxatu zela erran daiteke.



**Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko lehendakariak eta Miguel San Miguel Doneztebeko alkateak, Eguneko Zentroa egiteko aurreakordioa sinatu zuten Arkupeak elkartearen bestan**

Artxibokoa

## Oiloa saltsan Lehiaketa eta herri afaria

Gazteen Egunearen aitzinetik La Union Kasinoak antolatutako besta eta lehiaketa burutu ziren Donezteben. Lehiaketa honetan, arratsaldea eta gaua jaki goxo bat —oiloa saltsan— prestatzen pasatu behar zen eta gero herri afari ederra egin zen, musika eta txarangarekin.

Kasinoko I. Lehiaketa gastronomiko hau Mertxe Altzuri eta Higinia Mutuberriak osatutako bikoteak irabazi zuten, platera mingainarekin garbitzeko moduko kaxuela prestatu baitzuten. Ondotik, Mitxeo gaztea eta bere laguna sailkatu ziren; hirugarrenak, Juanma Leizaola eta Javier Blas izan ziren —gipuzkoarrek marmitakoaz au-

nitz jakinen dute, baina oiloa bezalako fundamentozko plateretaz, gutti-, eta 4. postua, Rafa Zabala eta Mc Iriartek osatutako Duo Dinamikoarentzat izan zen. Hauek, bi pertsona helduek egin beharko ez luketen sukaldaritza desastrea gauzatu zuten.

Herri afarian 70 lagunetik goiti bildu zen eta musika giroa *Jalisco Band*-ek jarri zuen.

## Bi laxoa taldeak finalerdietan

Gisa guzietako emaitzak izan dituzte Doneztebeko taldeek.

Gaur egungo txapeladuna den Doneztebe A taldeak, galdu egin ditu joan eta itzuliko bi partidak, aurtengo sailkapenean bere arerio nagusiak diren arraioztarren aurka. Nahiz eta finalerdietarako sailkatzeari lortu, doneztebarrak hasierako ligaxkan bigarren postuan gelditu dira. Arraioztarrak ederki ari dira eta aurtengo lehen txapel nagusia lortzeko modua dute, nahiz eta Doneztebe talde handia izaten segitzen duen.

Bertzalde, Doneztebe B taldea joan eta itzuliko partidetan Irurita A taldeari nagusitu zaio eta, honenbertzez, finaldirako sailkapena eskuratu du. Honela, Mariñelarenaren gaixotasunaren ondorioz izandako hasiera txarra zuzendu dute. Lagarren postuan sailkatu dira, Arraiotz, Doneztebe A eta Oitz A taldeen ondotik.



## BAZTAN

### ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

**Ibarrola Mertzeria**  
 Haurrendako arropa  
 0-14 urte  
 Parrokia kalea 6 - Doneztebe  
 948450463

**Mari Eruz**  
 LENTZERIA

Parrokia 11  
 Tfnoa: 45 01 12  
 DONEZTEBE

**MALERREKA**

# Zubietako urteko udal aurrekontua 65 milioi terdikoa izanen da

37.861.256 pezeta inbertsioetan gastatuko dira

TTIPI-TTAPA

65.598.945 pezeta-ko diru sarrera-irteerak izanen ditu aurten Zubietako Udalak, batzarrean onartutako aurrekontuaren arabera.

Gastuei dagokienez, 37.861.256 pezeta inbertsioetan joanen dira. Errota berritzeko lanak 21.205.000 pezeta-ko inbertsioa hartuko du; errepide nagusitik herri-erri sartzeko zubia moldatzea 6 milioi terdi gostatuko da eta oihan eta mendi lanetarako

9.906.256 pezeta bideratuko dira. Langileen soldatak ordaintzeko 12.601.477 pezeta erabiliko dira eta ondasunak eta zerbitzuak erosteko 6.638.250 pezeta.

Diru-sarreretan, inbertsioak ordaintzeko 20.134.102 pezeta-ko dirulaguntzak ailegatuko dira Nafarroako Gobernutik. 6.280.218 pezeta-ko dirulaguntza izanen da mendi eta oihan lanetarako; 4.550.000 pezeta zubia moldatzeko eta 9 milioi inguru espero dira errota be-

rritzearen lanak ordaintzen laguntzeko.

## Elgorriagako Udalak 23 milioiko aurrekontua

Elgorriagako Udalak 23.447.616 pezeta-ko aurrekontua izanen du aurten. Gasturik handiena ondasunak eta zerbitzuak erosten eginen du (8 milioi) eta inbertsioetan 5.621.080 pezeta. Langileei ordaintzeko 1.446.817 pezeta bideratu dira.

Diru-sarrereri dagokienez, ia 4 milioi ter-



## Juanjo Urrutia zenari omenaldia eskaini zitzaion Saldiasko bestetan

Saldiasko bestak aprobetxatuz omenaldi hunkigarria eskaini zion herriari Juanjo Urrutia zenari. Juan Jose Otxandorena alkateak oroigarria eman zion Patxiku Urrutia, Juanjoren aitari. Honek, jaialdian parte hartu zuten ASPEko pilotariak agurtu, omenaldia eskertu eta ikusleen txalo zaparrada jaso zuen.

Legarra

di zerga ezberdinen bidez sartuko dira, 4 milioi eskas tasen bidez, 7 milioi pasatuak transferentzia arruntekin eta

4.590.698 pezeta Nafarroako Gobernuak inbertsioak ordaintzeko emandako dirulaguntzen bitartez.

# Erik Andiarena eta Xabier Juankorena irabazle Kukumiku lehiaketan

Hamabi bikotek parte hartu du Langarrak antolatutako ekitaldian

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Langarra Euskara Taldeak antolatutako Kukumiku lehiaketa kulturala burutu da maiatza eta ekainean. Aurten hirugarren edizioan hamabi bikotek parte hartu du. Gaztetxoak DBHko lehen eta bigarren mailakoak ziren eta bi kanporaketan (Ituren eta Sunbillan) kultura oro-

korra, geografia, kirolak, musika, zinea eta telebistari buruzko galderak eta trebezi jokuak asmatu behar izan dituzte. Hamabi bikotetatik sei Doneztebeko zinean ekainaren 13an jokatu zen finalera pasatu ziren. Lehiaketa akitzeko sariak banatu ziren. Aipatu behar da parte hartu duten bikotei opariak banatu zitzaizkiela Doneztebeko

bankuetxe eta dendek emandako laguntzari esker. Aurtengo txapelduan Doneztebeko Erik Andiarena eta Xabier Juankorena izan dira, bigarrenak Eduardo Almandoz eta Iban Mingegia eta hirugarrenak Maria Mutuberria eta Vanessa Iribarren. Txalogarria izan da gazteek erakutsi duten maila eta kiroltasuna.

Langarrak eskertu

nahi du oparia emandutenei beuren laguntza. Honako hauek izan dira 98ko Kukumikuko laguntzaileak: Euskadiko Kutxa, Nafarroako Aurrezki Kutxa, Nafarroako Rural Kutxa, Apeztegia ferreteria, Xirrista Haur Arropa denda, Miren papertegia, Bazar 100, Ostiz, Mari Cruz lenteria, Blas liburudenda, Mena argazkidenda, Lakar

arropa denda, Saioa boutique, Ruiz opari denda, Gurutze liburudenda, Esther loradenda, Videoson, Ibarrola, Tximeleta, Kamamila, Taberna, Honorio Taberna, Zaldua, Doneztebeko Euskaltegia eta Langarra. Aipamen berezia egin nahi diote antolatzaileek Irrintzi ostatuari, dokumentazio lanetan grabazioak egin ez lagundu duelako.

**IKUSMENAREN BERRISKURATZEA**

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

**KONTSULTA ORDUTEGIA**  
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

## MAGNETISTA NATUROPATA

☎ (943) 62 30 55  
San Marcial, 7-4 IRUN

## ONDORIOETATIK INDARTZEKO

- Diabetia
- Asma
- Larru azaleko alergia
- Buruko mina
- Zizareak
- Oinen izerdia
- Prostata, etab...

**BEINTZAko OSTATUA**

☎ 948 450 014  
BEINTZA-LABAIEN



MALERREKAKO EUSKARA  
ZERBITZUAREN ARGITALPENEA

Euskara

Batzordea mintzo



Laguntzaile:  
Nafarroako Gobernua

## Internet-en zer ikusi

[www.cfnavarra.es/euskera](http://www.cfnavarra.es/euskera)

Nafarroako Hizkuntza politikarako Zuzendaritza Nagusiak web orria jarri du Interneten. Hona hemen bertan aurkitu ahal izanen dituzuen hainbat gauza: euskararen garapen historikoa Nafarroan, oraingo egoera, euskararen ezagutza, erabilpena, euskararekiko jarrerak, irakaskuntza... Nafarroan euskara arautzen duten bi lege nagusiok ere ikusgai dituzue: Euskararen Legea, eta Administrazio Publikoan Euskararen Erabilpena Arautzeko Foru Dekretua. Baina bada besterik; Hizkuntza Politikarako zuzendaritzari buruzko informazioa eta zuzendaritza horrek dituen plan nagusiak. Badakizue, beraz, nora jo, Nafarroako euskararen berri izan nahi baduzue.

### web-orria

Eskualdeari buruzko informazio kulturala eta turistikoa eskaintzen duten web-orrialdea ezarri dute Internet-en Baztango Balleko Udalak, Malerreka Mankomunitateak eta Bortziri-etako Euskara Mankomunitateak. Orrialdearen izenburua "Ongi etorri, hemen euskaraz bizi gara" da eta helbide elektronikoa: <http://www.eusnet.org/partaide/baztan-bidasoa>. Animo eta begiratu!




Eskualdeko informazioa eskaintzen du web-orriak

# Euskararen aldeko aitzinapausuak

## Euskara meritutzat hartuko dute epaileen lehiaketetan

Aginte Judizialaren Kontseilu Gorenak erabaki duenez, hemendik aitzinera euskaraz jakitea meritutzat hartuko da epaileek egiten dituzten leku-aldatze lehiaketetan eta baita lehen

destinoko lehiaketetan ere. Hala da, bai, aurrerantzean antzintasunari dagozkion urteei, gehienez ere, bertze hiru urte gehitu ahal izanen zaizkie euskaraz jakiteagatik. Erabaki honen EAEn eta Nafarroan lehiaketara ateratako lanpostuetan izanen du indarra.



## Euskaraz idaztean dudak

Administrazioko eguneroko lanean ari zarela, seguraski, behin baino gehiagotan, horrelako galderak egin dizkiozu zeure buruari...

- Joan ezkerro ongi idatzita al dago?
- B.O.N. nola erraten da euskaraz?
- Zein da telefono hitzaren

laburdura: tf., tlf., tel...?

- Kurrikuluma prestatu behar dut... baina nola?
  - 'Firma por delegación' itzuli behar eta... ezin asmatu!
  - Ba ote da testu hau errazago idazterik?
  - Ez dakit, ba, itzulpentxo hau ongi atera zaidan edo ez. ...eta ez duzu erantzunik jaso.
- Malerekako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak (Esther) dohain erantzungo dizu: Tfa: 948 451 746 eta Faxa: 948 451 770.

# Hizkuntza eskubideak: Norbanakoarenak eta taldearenak batera doaz


tza eskubideak ez dira gauzaten ahal komunitate eta hizkuntz talde guztien eskubideak ere errespetatzen ez badira.

## Elkarbizitzarako oinarriak

Toki berean bizi diren komunitate, talde eta pertsonen hizkuntza eskubideak uztartzea ezinbestekoa da elkarbizitzarako, baina izugarri zaila da. Horrexegatik lurraldean historikoki finkatutako hizkuntza komunitateak garrantzi handia du.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak dienez hizkuntza eskubideen dimensio indibiduala eta kolektiboa ez dira bereizten ahal. Gainera elkarren osagarri dira, hizkuntza komunitate baten barrenean garatzen baita, taldean, eta aldi berean, komunitate horren barrenean norbanakoak erabiltzen du eta hartaz baliatzen da. Horrela bada, norbanakoaren hizkun-





1998-99  
ikasturtearen  
aurreinskripzio  
datuen arabera,  
Malerrekako  
eskoletan 46  
haurrek eman dute  
izena D ereduan.

## HEZKUNTZA:

# Euskal eskola eta unibertsitatea

Euskal Hezkuntzan parte hartzen duten adituek irakaskuntzan euskarak izan duen bilakera aztertu zuten eta etorkizunerako helburu amankomunak landu zituzten. Bertze hainbat

punturen ildo nagusiak zehaztu zituzten: hizkuntzaren ofizialtasuna Euskal Herria osoan (Nafarroan eta Iparraldean lortzeko daudenak), hizkuntz ereduaren politika berri baten beha-

rra, Eskola Publiko Berriaren ideian sakontzea, Hezkuntza sistemak behar duen subiranotasuna, euskal curriculum-a, testugintza eta formakuntza, bake bidean parte aktiboa hartzeko proposamenak, euskal lan harremanetarako esparrua, etab...

aztertu dute gai hori. Unibertsitateak tratamendu berrak beharko luke».

- «Irakasle zaharrak ez dira inoiz euskaldunduko. Salbuespenak izango dira, baina halada».

- «Nik ez dut ikusten orain Nafarroan aparteko gogorik barruti unibertsitario bateratuaren aldeko akordioa bultzatzeko. Nik harreman onak ditut, baina hori kenduta ez dago ezer egiterik».

«Hiru puntutan laburtuko nuke ikasketa plan berrien desgokitasuna: lehena, ikasketa orduak gehitu egin dituzte; bigarrenik, espezializazioa lehen ikasgurtetik sartu dute; hirugarrenik ez dute aurrekusi diru gehiago».

Euskaldunen Eunkaria 1998ko urtarrilaren 7an argitaratua.



Pello Salaburu arizkundarra Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea da


### Unibertsitateko egoera makurra

Hori horrela, euskal irakaskuntzan anitz aitzindu dela ikusten da, hogeitaz hamar bilakera baikorra da. Dena dela, Unibertsitateko egoera bertzelakoa da. Irakur dezagun Arizkungo Pello Salaburuk, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV) errektoreak errandakoa:

- «Unibertsitatearen arazoa, Legebiltzarrean esan nuen bezala, arazo soziala da. Industrializazioa, esaterako, gizartearen arazoa da, eta Legebiltzarrean eztabaidatu eta

Garbiñe LEIZA:

# «Nafarra izateagatik diskriminatua EHU-n»



## dela kontutan hartzen.

Hau da: euskaraz ikasi nahita ere, Nafarroan gaztelaraz egiten ahal bada, ez dute Euskal Herriko Unibertsitatean euskaraz ikasi nahi izatea onartzen. Beraz, gauza bera da gaztelaraz zein euskaraz ikastea eta nafarrak, gaztelaraz ikastera behartuak gaude, gure Nafarroan bi karrera bakarrik egin baitaitezke euskaraz, magisteritzako bi espezialitate. Zuek atera kontuak!

Hau da: euskaraz ikasi nahita ere, Nafarroan gaztelaraz egiten ahal bada, ez dute Euskal Herriko Unibertsitatean euskaraz ikasi nahi izatea onartzen. Beraz, gauza bera da gaztelaraz zein euskaraz ikastea eta nafarrak, gaztelaraz ikastera behartuak gaude, gure Nafarroan bi karrera bakarrik egin baitaitezke euskaraz, magisteritzako bi espezialitate. Zuek atera kontuak!

## eman ta zabal zazu nafarren artean ezik

Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU-n) nafarra batek karrera bat egin nahi ezker, momentu honetan bi baldintza hauetako bat bete behar du:

1.- Euskadiko Komunitate Autonomoan bizitzea (honetarako bi urteko antzintasuna eskatzen dute) edo;

2.- Nafarroan ez izatea karrera hori ikasteko aukera.

Bigarren kasu honetan, kontua da **hizkuntza ez**



## Dirulaguntzak

### Malerrekako Mankomunitateak emanen dituen dirulaguntzak

1.- Malerrekako Mankomunitateak euskaldundu nahi duen Malerrekako ikasle langabetuei matrikularen ordainketan laguntzea erabaki du.

2.- Udako Euskal Unibertsitate

tatera doazen Malerrekako ikasle zein langabetuei matrikularen ordainketan laguntzea erabaki du.

Malerrekako Mankomunitateak 100.000 pezeta aurrirakusi ditu. Diru hau, ikastaroetan parte hartzen duten ikasle eta langabetuen artean banatuko da.

Eskaera orriak Malerrekako Mankomunitatean daude eta iraila artio egiten ahal da eskaera.

## Hezkuntza Sistema

ADINA



## 1998-99 ikasturtea Malerrekako aurreinskripzio datuak

### HERRIA

### D EREDUA

DONEZTEBE .....	26
ITUREN .....	8
SUNBILLA .....	4
LEGASA .....	2
NARBARTE .....	2
ERATSUN .....	2
EZKURRA .....	1
BEINTZA-LABAIEN .....	1
SALDIAS .....	---
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>46</b>


# Euskarazko informatika

Aurten ere euskarak zabaldu egingo dizkio bere leihoak informatikaren eraberritzeari. Izan ere, orain hiru urte urratutako bideari jarraiki, 1998.aren amaiera aldera erosgai izango baitira Microsoft-Windows 98 sistema eragilearen eta Microsoft Office-ren euskarazko bertsioak. Horren harira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioek eta Microsoft Korporazioak sinatu berria dute software produktu berri horiek euskaratzea bideratuko duen hitzarmena Microsoft-Windows 98 sistema eragilearekin batera -Internet Explorer 4.0 nabigatzailea barne-, Microsoft Office-ren baitako Word 9.x idazprograma, Excel 9.s kalkulu orria eta Outlook 9.s agenda izango dira, hain justu, euskaratuko diren produktuak, euskarazko zuzentzaile ortografikoa ere barne izango duena.

Microsoft arduratuko da euskarazko produktuak zabaldu eta saltzeaz.

Produktuak euskaratzeko garaian, Windows sistema eragile eta Microsoft-eko ofimatika produktuak hautatu dira, hauek baitira informatikaren eremuan usuen erabiltzen direnak, bai administrazioaren esparruan, bai gizarte ekimenari lotutako alor gehienetan. Hori horrela, produktu horiek tresna egokiak dira euskara informatikaren unitertsoan ohiko hizkuntza bihurtzeko.

Hortaz, euskarri informatikoak erosi behar badituzu, badakizu euskaraz ere erosten ahal dituzula.



## Euskara historian

Ohikoa da oso Euskararen historiari dagokien ikerlanetan gure hizkuntza izan duen gibelertze prozesuko marrak azaltzea. Lehen mendeetako uhinak, laino historikoen azpian gordeta gelditu direlako, zehaztea zailak ditugun arren, Erdi Aroan sartzen garen heinean, euskararen oihartzunak testigantza objetiboetan funts sendoak ditu.

Dena den, hizkuntzak berez ez dira hedatzen edo murrizten, bizi ala hiltzen. Testuinguru eta prozesu anitzen baita dituzten euren aldeko zein kontrako indarrak, azken finean beraien erabilpen eta eragina finkatzen dutenak. Ildo honetatik batzuek aipatu duten bezala, Nafarroako erresuma ohia ondoan zituen bi estatu indartsuek deuseztatzeak euskarari eman zion zartada ezkor bezain eraginkorra oso kontutan hartzea izan beharko genuke ondorengo bilakaeraz jabetzeko. Paradoxak paradoxa Martin de Azpilicueta barasoindarrak, Huarte de San Juan garestarrak edo Axular urdazubiarrak Nafarroako erresumak izan zezakeen ahalmen intelektualaren goi maila adierazten zuten unetan erresumaren ondar errautsak itzaltzen ziren.

Hizkuntza mailan Tafallaldeak pairatu zuen XVI. mendean geroztik gauzatu zen egoera politikoa berriaren ondorioak. Izan ere, mende askotan zehar, jende, kultura eta mintzairaren aldetik izandako sinbiosian euskara galtzailea suertatu zen. Pentsatzen dena baino motelago joan zen arren, hizpide honen mugak pixkanaka pixkanaka gibelertatu ziren.

Prozesu Tamalgarrari hau, Aro Garaikidearekin batera, bizkortu zen arras. Joxe Angel Irigaraireren erranetan, «XIX. mendetik goiti nehoiz baino gehiago galduko da euskara». Luis Luciano Bonaparte euskaltzaleak burutu zuen mapa zaharkitua utziz, Nafarroa osoan barrena euskararen aurkako ekaitzak etengabe jo egin du azken bi gizaldiotan. Hala eta guztiz ere, izan ziren «ekaitzari gibelera eman» erranahiruari eutsiz, altxatu ziren euskaltzaleak, elebakarkeria bultzatzen zuten lege, arau eta praxi guztien kontra jotzeko eta euskal hizkuntzari behar zuen «tornua» emateko.

Egun, amaitzeaz dugun mihurtzeko honetan, azken garaietako jarraipena dugulakoan gaudela. Euskarak pairatzen dituen eraso bortitz edo ixilen aurre-

### Gibelertze prozesua

Garai batean euskarak gaur baino hagitzez ere muga zabalagoak zituen.

- Iparraldean: Garoña ibairaino (K.o. 100-200 urteko harri-inskripzioak horren lekuko).
- Ekialdean: Kataluniako Pirinioetaraino.
- Hegoaldean: Burgos eta Soriaraino.

Erdi Aroan hizkuntza erromantze gehienek (gaztelera, frantsesa, katalana...) idazteko ere erabiltzen hasi ziren.

Eskatutako bulda bati esker (1566) Eremuko Pirinio Atlantikoak lehen aldiz euskaldunen arteko muga bihurtu ziren.

Estatu modernoek, beraz, inposatu egin zituzten beraien hizkuntzak kultura eta administrazio arloetan. Baztertze prozesu horren ondorioz lur-eremu handiak galdu zituen euskarak XVIII eta XIX. mendeetan, batipat gaztelera hurbil zuen tokietan.

an, sektore herrikoien aldetik, kemen biziaren agertzen baita.

Euskaltzaleei esker zabaltzen ari baitira, Luis Luciano Bonapartek islatzen zituen euskalki eta mugak, lehen aldiz, euskararen alde mugituz.

**MALERREKA**

# Urrezko Ezteiak eta 85 urteak betetzen dituztenak omendu zituen Arkupeak elkarteak

Elkartearen hamabigarren urteurrena ere ospatu zuten

TTIPI-TTAPA

Joan den ortziralean, ekainaren 27an ospatu zen Arkupeak elkartearen urteroko Anaitasun Besta. CANen laguntza izan zuten aurtengoan ere antolatzerako orduan eta, ohi bezala, giro eta animazio bikaina izan zuten besta egun eder honetan.

Aurtengoan, 48 lagun dira lautan hogeita bortz urte betetzen di-

tuztenak eta 19 bikotek berrogeita hamar urte bete dituzte senar-emazte egin zirenetik. Zoritxarrez, aurten omenaldia jaso behar zuen M<sup>a</sup> Luisa Iragi almandoztarra egun batzuk lehenago hil zen.

Ekitaldiak goizetik hasi ziren, txistulari eta txarangaren musikarekin. Gero Meza Nagusia eman zuen artzapezpikuak eta bertsolariek ere parte hartu zuten eki-

taldian. Gero, bazkaria izan zuten Bordatxo dantzalekuan. Bazkailondoan, omenaldia eskaini zitzaien aurtengo bestaren protagonista nagusiei eta azkenik, dantzaldia izan zuten Bordatxon bertan AMALUR taldearekin

Etorkizunera begira, uztailearen 26an Sunbilla ospatuko den Aitonamonen Eguna prestatzen ari da Arkupeak elkarteak.

## Urrezko Ezteiak

**ARANTZA**

Juan Larretxea Agesta-Carmen Gonzalez Ezpeleta  
Juan Indakotxea Telletxea-M<sup>a</sup> Jesus Maiz Bergara

**ARRAIOZ**

Modesto Jorajuria Larramendi-M<sup>a</sup> Luisa Iñarrea Etxalar

**BERA**

Marcos Soto Crespo-Flora Bermudez Bravo  
Josetxo Fagoaga Azkona-Hilaria Markina Ruiz

**DONEZTEBE**

Jose Ariztegi Telletxea-Basilisa Iribarren Iribarren

**ERRATZU**

Juan Sarratea Mendiburu-M<sup>a</sup> Candelaria Erramuzpe

**ETXALAR**

Bernardo Sanzberro Arburua-Teodora Alzuguren Iturria

**EZKURRA**

Sergio Gomez Garcia-Ana Telletxea Hernandorena

**GOIZUETA**

Benito Olló Morea-Romana Eskudero Ezkurra  
Justo Lujanbio Zubeldia-M<sup>a</sup> Jesus Ansa Huarte

**IRURITA**

Antonio Urrutia Bikondoa-M<sup>a</sup> Jesus Sarratea Etxalar  
Mauro Goikoetxea Etxeberri-Juanita Muru Etxegoien

**LEITZA**

Francisco Olano Baraibar-Andresa Arraras Zubillaga  
Jose Ramon Billabona Zestau-Barbara Saralegi Zabaleta  
German Diosdado Gallardo-Belen Perez Barroso

**SUNBILLA**

Juan Arretxea-Maria Espelosin  
Miguel Gelbenzu Manterola-Fermina Almandoz Ibarra  
Modesto Gago Lekaroz-Francisca Agesta Altzugarai

## 85 urte

Maritxu Irigoien Arozena	Almandoz
Fermin Gaztelu Ibarra	Aniz
Jose M <sup>a</sup> Legarreta Huizi	Arano
Fermin Biurrarena Larretxea	Arantza
Juan Ugarte Gortari	Arraioz
Antonio Albistur Mindegia	Beintza-Labaien
Francisca Aldaia Otxandorena	"
Modesta Huarte Iñarga	Bera
Asuncion Etxandi Almandoz	Donamaria
Maria Otxandorena Baleztena	Doneztebe
Agustin Ariztia Etxenike	Elbete
Angel Alberro Zugarramurdi	Elizondo
Joaquin Etchart Etxeberria	Elizondo
Jose Larretxea Ariztia	Elizondo
M <sup>a</sup> Juana Amorena Soldeman	Erratzu
Meliton Irigoien Arretxea	Erratzu
Visitacion Iturburua Hualde	Erratzu
Francisco Etxeberria Agesta	Etxalar
Jose M <sup>a</sup> Danboriena Etxeberria	Etxalar
Agustina Etxeberria Goizueta	Goizueta
Fermina Ondarrola Arozena	Goizueta
Gabino Lekuona Astibia	Goizueta
Juan Antonio Huizi Salaberria	Goizueta
M <sup>a</sup> Pilar Alba Loiarte	Goizueta
Josefa Lar Larretxea	Igantzi
Bautista Telletxea Elizondo	Igantzi
Manuela Txoperena Urrutia	Igantzi
Antonia Ordoki Mitxelena	Igantzi
Gregoria Bikondoa Inda	Irurita
Francisca Ezkurra Baleztena	Ituren
Martin Aldapa Lekaroz	Ituren
Concepcion Billabona Zestau	Leitza
Catalina Telletxea Mariezkurrena	Leitza
Jose Perurena Sagastibeltza	Leitza
Jose Joaquin Otermin Caballero	Leitza
Lontxo Lasarte Larrea	Leitza
Juana Labaien Urkiola	Leitza
Gregorio Elizondo Zelaieta	Lekaroz
Francisco Ibarra Indart	Narbarte
Aurora Quintana Etxeberria	Narbarte
Juan Pedro Irigoien Gaintza	Ornoz
M <sup>a</sup> Teresa Mazizior Albistur	Sunbilla
Juliana Etxenike Petrirena	Sunbilla
Martina Zubieta Sanberro	Sunbilla
Pedro Arretxea Danboriena	Sunbilla
Maria Galainena Etxenike	Urdazubi
Maria Miguelena Urroz	Urrotz
Francisco Juanikorena Mutuberria	Zubieta

**GOIZUETA**

# Juanmiel Apezetxea presoaren aldeko Herri Ekimena eratu da

Legediaren arabera aske egon beharko luke

ESTEBAN AROZENA

Ekainaren 13az gerostik, Juanmiel Apezetxea herriko presoak badi bere askatasunaren alde lan eginen duen Herri Ekimena. Dena den, oraindik pauso bat besterik ez omen da eman, plataformaren sortzaileen helburua erakundeen -Udala, Umore Ona, Ehiztari eta Gurasoen elkarte eta Gazte Asanblada- eta ahal den herritar gehien atxikimendua lortzea baita. Kontutan hartu behar da, gaur egun indarrean dagoen lege penitentziarioa betetzea dela manifestuan egiten den eskaera bakarra. Legedia hau aplikatuz



Juanmielen askatasunaren aldeko plataformako kideak aurkezpen egunean

gero, joan den aspaldian kanpoan egonen litzateke Juanmiel, 1995ean bete baitzituen zigorraren hiru laurdenak.

**Errepide moldatzea**

68 milioi pezetan adjudikatu dio Nafarroako

Gobernuak COPRISA enpresari Arranbidetik Naparalde bitarteko errepide zatiaren egokitu eta zolaberritze lana. Egun batetik bestera hasiko omen dira horretan COPRISA enpresakoak.



**Literaturgintza lehiaketa**

Itsaso Lujanbio, Eneritz Arozena eta Alaitz Eskuderok, Nafarroako Gobernuak antolatzen duen literaturgintza lehiaketan saridunak suertatu dira. Marcotegi kontseilariak eman zizkien diplomak eta eskupekoak Iruñean ekainaren 19an.



**Pala txapelketa mixtoa**

Izaskun Bakero eta Iñaki Loiartek (eskuinean) irabazi dute aurtengo pala txapelketa mixtoa.

**ARESO**

# Ikasturte bukaerako antzeslanak eskaini zituzten eskolan

HBk bere 20. urteurrena ospatu zuen

JUANA M<sup>o</sup> SAIZAR

Haurrek ikasturte bukaerako festa eskaini zuten, antzeslana eta dantzarekin. Txikiak, 'Zazpi antxumeak', ertainak 'Ambrosio kor-bata saltzailea' antzeslana eta handienak Mike

Jacksonen abesti baten koreografia. Gauez, berriz, San Juan gaueko afaria herriko plazan eta ondoren suetan saltoka neka-neka egin arte.

**Herri Batasunaren 20. urteurrena**

Herri Batasunaren



hogeigarren urteurrena afari batekin ospatu zuten hogeita hamar bat lagunek ekainaren 19an. Talde honek, euskal presoak Euskal Herrira hurbiltzearen aldeko burruna nazionalen ere parte hartu zuen, suziariak botatz.



**Eskolarteko txapelketa**

Eskolarteko txapelketan aresoarran txapeldun suertatu dira alebin mailan. Denetara 7 partidu jokatu eta irabazi zituzten. Mikel Olazabal eta Javi Belauntzarán izan dira irabazleak. Iaz ere, Errenterian txapeldunak izan ziren.





**San Juan bezpera**

Haur askok parte hartu zuen San Juan bezperako ingurutxoan. Ondoren 480 txistor ogitarteko banatu ziren. Gauean berriz, 700 lagunetik gora bildu ziren plazako herri afarian, giro ezin hobean.

# Sarriopapeleko LAB sindikatuak fabrikako lan egoera salatu du

Kontratu berriak Aldi Baterako Lan Enpresen bidez egiten omen dira

JOSEBA AZPIROZ

Sarriopapeleko LAB sindikatuak nota bat zabaldu berri du herrian enpresaren jarrera kritikatu. LABen iritziz, azken urte hauetan gertatu den pertsonalaren murrizketak (1.400 lagunetik ia 500era) kontratu berriak egitera behartzen du enpresa produktioari aurre egin ahal izateko. Kontratu hauek, 300 inguru 1997an, oso aldi motzatarako izateaz gain, ia guztiak Aldi Baterako Lan Enpresen bitartez (Iruñaempleo) eginak izaten omen dira, Enpresa Komiteak kontratuak zuzenean egiteko eskatu bazuen ere. Lan Enpresen bitartez eginiko kontratuak, ebentualtasunak

sortzen duen hestuasuna eta babesik eza sakontzen dira eta lan-baldintzak okertzen dira, bai alderdi sozialean baita ekonomikoan ere. Protesta honi, mobilizazio orokorragoak erantsiko dizkietela iragarri dute, modu positibo batean arazoa konpontzeko.

**Etxebizitzari buruzko inkesta**

Edozein programa eta promozio hasi aurretik, etxebizitza berriak egiteko beharrik badagoen jakiteko sondeo edo inkesta bat egin ari da Udala. Etxebizitza behar baduzu, Udaltxera joan eta inkesta orri bat bete behar duzu, uztailaren 15a baino lehen.

Bestalde, egun hauetan aurkeztu diete teknikoek zinegotzietzuei Hirigintza Udal Plan berriaren aurrerapena.

**Justiziak arrazoia eman dio Udalari udal idazkari lanposturako lehiaketa deialdian**

Idazkari izateko euskarara jakitea nahitaezko baldintz izateagatik deialdiaren aurka pertsona batek jarritako errekurtsoaren epaia Udalaren aldekoa aterada. Eragin handia izan dezake epai honek, herritarrekin harremana eduki behar duten lanpostuen deialdian, euskararen ezaguera eskatzea legezkoa dela diolako eta Leitzako Idazkariaren lanpostu-

rako legezkoa izateaz gain, herritarrei zerbitzu on bat eskaintzeko nahitaezkoa dela dio.

Erabaki hau dela eta UEMAkere balorazio oso positiboa egin du, «hasitako bideari babes legala eman eta alderdi horretan behinbetiko bidea irekitzen diolako, bai Leitzako Udalari, bai UEMari, baita beste udalei ere». Leitzako Udalak eta UEMAK udal guztiek «bere lanpostu guztietan langile euskaldunak izanen dituztela bermatu behar dute, hori baita bide bakarra udal administrazioan euskara lan eta zerbitzu hizkuntza bihurtzeko. Horretarako ziurrena eta merkeena deialdian euskara eskatzea da».

flash

**Pestetako argazkiak TTIPITTAPAN ateratzeko**

erretrato zaharrak edo pestetakoak badituzu eta uzteko prest bazaude -bueltarekin, noski!- jar zaitez gurekin harremanetan, 948 631188 telefonora deituz edo Herriko Etxean galdetuz (Joseba). Gehigarri berexian argitaratuko dira.

**Leitzalarreko**

bideko kuneta edo ubideak ormigoizkoak egiten ari dira. Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzerekin sei lagun kontratatu dira lan hori egiteko. INEMek emandako zerrendatik zozketaz egin zen aukeraketa eta hila-bete terdiz ariko dira.

**Igerilekuetako**

obren bukaeran sortu diren arazo batzuk, denboraldiaren hasera aste bat atzeratu dute.

**Joantxenea baserriaren**

aldeko zozketaren zenbakiak atreak dira. Ondorengo jate-txeetako bakoitzean bi lagunentzako afora da saria: Arakindegia (8611) Basa-Kabi (4128) Erreka sag. (5730) Iruzu (7653) Mendizabal (8279) Musunzar (2858) Oialde (6296) Sagasti (8738) Torrea (6145)

**Plazako VI. eskuz binakako**

txapelketaren finala larunbatean, uztailak 4, arratsaldeko 6,30-etan jokatu da.

**GAZTELU ITURGINTZA**

**KALEFAKZIOA**

Elgoien 32  
Tfnoa: 948 510 086 • LEITZA

**SORO igeltseroa**

Sukalde, komuna, Pladur eta beste lanak eta konponketak

Patxi Arrazola, 3 - 2.B • © 948 610722 • LEITZA

**BAZTAN**

# 1.001 milioi pezetakoa izanen da aurtengo udal aurrekontua

Inbertsioetan 459 milioitik goiti gastatuko da

TTIPI-TTAPA

1.001.953.384 pezetako diru sarrera-irteerak izanen ditu aurtun Balleko Udalak, azken batzarrean ahobatez onartutako aurrekontuaren arabera. Batzarre berean, Udal ikastolaren (54.265.000 pezeta) eta F.J. de Iriarte erresidentziaren (171 milioi pezeta) aurrekontuak ere onartu ziren.

**459 MILIOIKO INBERTSIOAK**

Udal aurrekontuan, gastu haundienak inbertsioetan egingen dira, 459.749.500 pezeta erabiliko baitira horretarako. Lan hauen artean, Erdikoborda, Dorrea, Komainekomendi eta bertze hainbat bide moldatzeko proiektua izanen da garestiena, 124.254.000 pezetako aurrekontua baitauka Hirurteko Planaren barnean dagoen lan honek -Nafarroako Gobernuaren finantziazioa, 84 milioikoa izanen da-. Amaiur, Azpilkueta, Erratzu, Elbete, Lekaroz, Almandoz, Irurita



**Arbaso baztandarrak dituen margolari famatua Mexikon**

Argazkian ageri dena Lourdes Arretxea margolari mexikarra da. Adituek diotenez etorkizun bikaina dauka margoaren munduan eta berriki erakusketa zabaldu zuen Mexiko Hirian. Sortzez mexikarra bada ere, arbasoak baztandarrak ditu -aita Elbeteko Amoneako Martin Arretxea eta ama M<sup>a</sup> Jesus Indart, Gartaingo Jose Indart eta Elbeteko Jesusa Larregiren alaba-. Senarra, berriez, Lekarozko Atxaborroako Josetxo Garaikoe-txea da.

eta Oronozko argiteria milioi Iruñetik ailegaberriez 42.700.000 pezetako dira-. Iruritako hiru karrika zolaberriez,

Zozaiako plazaren eta Erratzuko pilotalekua eta Iturrizar karrikaren urbanizazio lanek 33.850.000 pezetakoa aurrekontua dute. Kirol instalazioetan 31 milioi terdiko lanak egingen dira eta Almandoen urhartzea, eramatea eta depositoa egiteko 29.130.000 pezeta bideratuko dira. Azkaraten ere lan berdinsua egingen da, 16 milioi terdi pezetaren truke. Zaldubia eta Ordoki industrialdeak urbanizatzen ere ia 40 milioi gastatuko dira.

Langileen soldatak ordaintzen 208.494.099 pezeta gastatuko dira eta ondasun eta zerbitzuak erosten 194.134.000 pezeta.

Diru-sarrerei dago kienez, zerga eta tasa ezberdinen bitartez 213 milioi pezetatik goiti sartuko da udal kutxetan. 271.605.000 pezeta transferentzia arruntent bidez sartuko dira eta 301.436.784 pezeta inbertsioak ordaintzeko Nafarroako Gobernutik ailegatutako diru-laguntzen bitartez.

**flash**

❖ **Ibilgailuen gaineke zerga** dela eta 35.292.501 pezetako diru-sarrerak izanen ditu aurtun Balleko Udalak. Zerga ordaintzeko epea uztailearen 15ean bukatuko da. Gero, abuztuaren 15a bitartean %5eko erre-kargua kobratuko da.

❖ **Udako zine egitaraua**  
Astearte honetan, 'Herkules' filmearen emanaldiarekin hasi da Baztango Udalak, Arte eta Kultura 98 ekitaldien barnean antolatutako Udako Zine egitarauaren emanaldiak. Uztailearen 2an, ortzeguna, 'Nire lagunik onenaren ezkontza' ematen dute; uztailearen 7an, 'Napoleon (txakurtxo abenturazalea)' eta uztailearen 9an 'Eguzki Jainkoaren bila'. Emanaldi guztiak Elizondoko Merkatu Plazan izanen dira, arratseko 10,30etatik aitzin.

❖ **Baztandarren Biltzarra**  
Materiala (kamisetak, zapia...) salgai dago Baztango zenbait lekutan. Elkar-tearen telefonoa besta pastu arte 910 33 87 79 da.

**MENDI OSTATUA**  
Santiago 25 - ☎ 948 580313  
ELIZONDO

**SOULE**  
**Hileta artea**  
☎ 948 453 444  
☎ 908 779 903  
ARIZKUN

**IPINGI** ZATOZ ETA IKUSI  
Santiago 88, ☎ 948 580 939  
ELIZONDO

**UDAKO ARROPA**  
Soinekoak, konjunttoak galtza eta faldekin, kamisetak, galtza bakeroak koloretan eta bainujantziak

**KONPLEMENTOAK**  
Belarritakoak, koilareak, painueloak, gerrikoak...

**Ezkontzetarako orogarriak egiten ditugu**

**Artesana Okindegia**  
Santiago, 20 • ELIZONDO

- **Gatzarik gabeko ogiak**
- **Integralak**  
- Zekalea  
- Soia
- **Normalak**  
- Viena  
- Txokolatzekoak  
- Mahatspasak eta intxaurrak  
- Frutekin  
- Bolloak  
- Txapata

**BAZTAN**

**Eskeletan moldatze lanak egiteko laguntza eskatu du Udalak**

Ikastetxe publikoetan moldatze, zabalitze eta hobetze lanak egiteko proiektuei diruz laguntzeko Nafarroako Gobernuak egindako deialdira, zenbait proiektu aurkeztu du Balleko Udalak.

Honela, Zigako eskolaren aintzinaldea margotu eta beheko solairuan ikasgelak egiteko proiektua aurkeztu da. Iruritako eskolan, errekreorako lekua moldatuko da eta Erratzuko eskolan patioa moldatuko da. Gartaingo eskola kanpo aldetik itxura berritzeaz gain, kafeakzioa jarriko da eta ikasgela bat bitan banatuko da, proiektuaren arabera. Elizondoko eskolan, igogailua jarriko da eta patinai pista eta futbol zelaia eginen dira. Lekarozko eskolan, igerilekua eginen da.

**Gaztanberaren Kofradiaren laugarren besta**

Lau euskal futbol talde nagusiak (Osasuna, Alaves, Erreal eta Athletic), Jose Antonio Zaldua, Juan Angel Erice, Karnele Goñi eta Rufino de Espinal kaputxinoa dira Kofradiaren kide berriak.



Santioko ermita, Azpilkuetako Urrasun auzoan

**Azpilkuetan ere Sanferminak uztailaren 3tik 7ra**

'Pobre de mi' San Fermin egunean eginen dute

**Ortzileria, uztailak 3**  
**12etan** txupinazoa.  
**9,30etan** Herriarte soziedadean afari herrikoia, JOXE ANGEL akordeolariaren animazioarekin.  
**12,30etatik** aitzin dantzaldia plazan JOXE ANGEL akordeolariarekin.

**Larunbata, uztailak 4**  
**Gaueko 8,30etatik 10,30etar** dantzaldia TRIKIMAILU taldearekin. **1etatik 5etara** gaupasa TRIKIMAILU taldearekin.

**Igandea, uztailak 5**  
**4etan** herritarren arteko mus txapelketa. **8,30etatik 10,30etara eta 12etatik 4,30etara** dantzaldia ARABA taldearekin.

**Astelehena, uztailak 6**  
**Haurren Eguna**  
**5etan** haurren txolada eta jokua. **9,30etan** ezkil-jotzea San Fermin errebitzeko. **10etan** herrian sortu eta herrian bizidiren emakumeen afaria Herriarte elkartearen. **8,30etatik 10,30etara**

dantzaldia ANGEL MARI akordeolariarekin. **12,30etatik 4,30etara** gaupasa ANGEL MARI akordeolariarekin.

**Asteartea, uztailak 7**  
**San Fermin Eguna**  
**11etan** Meza Nagusia. Ondotik hameketakoa. **2,30etan** zikiro-jatea JOXE ANGEL akordeolariak animatua. **10etan** afaria eta gero gaupasa JOXE ANGELen animazioarekin. X orduetan 'Pobre de mi'.

**flash**

**Euskara ikastaroak abuztuaren**

Baztango AEKk abuzturako euskara ikastaroak antolatu ditu. Alde batetik EGA ikastaroa eginen da (egunak eta ordu kopurua aurreratu) eta bertetik, 1. urratsa (lau astez, lau ordu egunero). Izena ematea uztaila osoan egiten ahal da, 948 452471 telefonora deituz edo zuzenean Parkeko ikastolara ganez.

**Almandozko Mendiola**

auzoko bizilagunek eskaria luzatu diote Balleko Udalarari, N-121 errepidetik auzorako sarbidea argiago seinalizatzeko eskatuz. Auzotarren erranetan, anbulantziek eta bertze zerbitzuek zailtasunak dituzte eta sarritan San Blaserraino gaten dira itzulua ematera, denbora dexente galduz. Hau dela eta, Mendiola bizilagunek bi bide-seinale jartzea eskatu dute, bat San Blas eta Mendiola bidegurutzean berean eta bertzea N-121 errepidean, bi tune-len artean.

ONGI PASA HERRIKO BESTAK

**Hamár urte baino gehiago zure zerbitzuan**

**Zergalan Asesoria, S.L.**

Akullegi, 3 - 2.A  
 © 948 580 335  
 ELIZONDO

**Ordutegia:** Astelehenetik Ortziralerara, egunero goizeko 9etatik 13,30ak arte.

- Auditoriak
- Zerga Aholkularitza
  - ⇒ Errenta (Aitorpenak, moduloak, e.a...)
  - ⇒ Elkarte gaineko Zerga
- Ekonomia Aholkularitza
  - ⇒ Bideragarritasun ikerketak
  - ⇒ Koste ikerketak
- Kontabilitateak
- Nominak, Aseguro Sozialak
- BEZ (IVA)

# Xaretaren historiari buruzko ikastaroan 25 lagun aritu ziren

Inguruari buruz dauden dokumentuak aztertu zituzten

TTIPI-TTAPA

Xaretaren historia ezagutarazteko ikastaroa burutu zen ekainaren 12 eta 13ko asteburuan Urdazubiko Menta jatetxean. Alberto Santana, Deustuko historia irakasleak eman zuen ikastaroa. Santanak duela urte terdi ezagutu zuen Urdazubiko monastegia eta historikoki garrantzitsua izanen zela pentsatuz, bertako dokumentuak aztertu zituen.

Ikastaro honetan hogeita bortz lagunek parte hartu dute, eta ez bakarrik Xareta inguruak. «Baztan, Donibane-Lohitzune edo Senperetik ere etorri zaizkigu» dio Menta jatetxeko Edurne Hernandezek. Ikastaro honetan Aurrehistoriatik hasita gaur egungo gertakariak bitarte aztertu di-



Nafarroako erregeak monastegian egon zirela gogoratu da ikastaroan

tuzte, baina izan dira interes berezia piztu duten gaiak, Edurneren arabera. «Erdi Aroan hemen inguruan izan ziren gudak; Nafarroako Erregeak Urdazubiko monastegian egon zireneko; muga inguru

denez, Karlistadek ere eragin handia izan zuten eta Xaretaren iparraldean, Senpere eta Saran, hirurehun urtez ingelesak nagusi izan zirela, batez ere».

Beraz, ikastaroaren balantze positiboa egin

dute antolatzaileek eta jendea gustora aritu da. Hori dela eta, datorren urtean bertze ikastaro bat egiteko asmoa dute. «Aurten dokumentuak eta datorren urtean monumentuak aztertuko ditugu».

## Izena aldatu zaie inguruko zenbait errepede zatiri

Nafarroako Gobernuak, inguruko zenbait errepederen izena eta kategoria aldatu du Foru Dekretu baten bidez.

Honela, lehen autobidetik Leitzarako NA-1320 errepedeak eta Leitzatik Donezteberako NA-170 errepedeak bat egin dute eta orain NA-170 izena izanen du errepede osoak (31,8 km). Lehen N-121-A errepedearen barnean ze goen Belateko mendateak, orain NA-1210 izena hartuko du. Lekunberri eta Leitza lotzen zituen NA-170 errepedeak NA-1700 izena hartuko du orain.

## URDAZUBIKO ERREPIDEA

Bertzalde, Nafarroako Gobernuak, Urdazubiko Udalari eman dio NA-4402 errepedearen azkeneko 70 metroak.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

**ANZABAL**  
AGENZIA

**Zurich Aseguruak**

• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak

**Lan aholkularitza**

• Nomina eta Aseguru Sozialak

**Aholkularitza fiskala**

• Errenta Deklarazioak, IVA...

**Inmobiliaria**

• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

**Gestoria**

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tfnoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO



**BAZTAN OPTIKA**

**ORDUTEGIA:**

Astearte eta ortzial goizetan, 10etatik 1,30etara eta asteazken arratsaldetan, 5etatik 7,30etara

Santiago, 33 (Baztan ostatuaren aitzinean) • ELIZONDO

**OPS Ingenieros S.L.**

- Topografi lanak: Lur neurketak, balorazioak.
- Nekazal proiektuak: Bideak, ur deposituak, etxebizitzak, granjak, nabeak...

Barañain Etorb.2 • IRUÑA • Tel: 948267453-948267602

**OSKORRI liburudenda**

- Liburuak-prentsa-mapak-gidak
- Argazkilaritza materiala
- Papertegia-inprenta

© 948 592 245 • Petreina • OROÑOZ-MUGAIRI



**ARMUA**  
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km  
© 948 599 131 - URDAZUBI

*Eskisaroi*  
jatetxea

Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013  
ELIZONDO



**JATETXEA**  
© 948 580101  
Santiago 1  
ELIZONDO

Galarza >


# Gan den urteko herriko kontuak onartu dituzte Herriko Etxean

Diru sartzeak gastuak baino ia bi milioi handiagoak izan dira

MIXEL ETA JACQUELINE

Herriko kontuak martxoaren 24an onartuak izan dira. 1997ko urtean 7.396.867 liberako diru ateratzea egin du aurre Sarako herriak eta diru iturriak 9.316.178 liberakoak izan dira. Ikus daitekeen bezala gastuak 1.919.311 liberez gaindituak dira, lezeek eta Larrungo trenari esker egin mozkinekin. Urte berean 3.649.551 liberaren obrak egin dira herrian eta hauetan mailleguen itzultzeak sartzen dira: Maileguren itzultzea, 347.872 L; gaiak, 638.194 L; lur erostea, 4.763 L; erakuntzak, 875.955 L; bidetako lanak, 1.137.592 L eta bertzeak (oihana, plaza...), 645.175 L.

Hildo beretik jarraituz, aurtengo aurrekontuan 830.000 libera



Saratarrak eta hendaiarrak, EKIA lehiaketarako entseian eta publikoaren aurrean



onartuak izan dira Herriko Etxearen azken estaiaren moldatzeko. Bertan herriko artxibak beiratuak izanen dira. Hauetaz gain, plazako obrentzat 3.784.000 liberako diru enplegua bozkatua izan da eta has-tapen batean 1.500.000 libera baliatuko dira. 1998 urterako elkarteri banatzekoa den dirulaguntza ahobatez bozkatua izan da eta

334.000 liberetarat hel-tzen da.

## Azken lan eguna egin eta saria jaso zuen Jaiberrik

27 urtez herriko langile izan ondoren, Jeannot Etxeberrigarai edo, hobeki erran, Jaiberrik bere laneko azken eguna apirilaren 30ean burutu zuen. Karia hortara, ekainaren 19an Herriko Etxeak

eskertu du bere lankide eta hautetsien aurrean, erran gabe doa ukan duela sari. Zorion guziak herritarren izenean, xahardiru luze-luze batentzat, agian!

## EKIA Euskara Kantua Indarra eta Abilezia

Hazparnen iragan zen AEKK antolatu bostgarren EKIA (Euskara, Kantua, Indarra eta

Abilezia) lehiaketa. Sarako gau eskolak parte hartu zuen Hendaikoekin bateratuz ekainaren 14an. Gainera babilentria egin dute bederatzita taldeen artean txapeldun atera baitira.

Aipamen berezi bar merexi du saratar eta hendaiarrek aurkeztu zuten kantuak, Claude François eta «les claudettes» moduan. Oso arrakastatsua izan zen.

**Maderas GOMEN**

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • © 948 580 645

**MENDIALDE Jatetxea**

Etxeko gasnak saltzen ditugu  
Dantxarinearako bidean, 66. km.  
AMAIUR • Tfnoa: 948 453 060

**BAZTAN FUNERARIA**

EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN  
ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK  
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO  
© 948 580373 • 908 776176

**ZALDUBI**

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA

**EZKONTZAK**

**Felix M<sup>o</sup> Elizalde Escudero** eta **Natalia Trevejo Mutuberria**, Doneztebe eta Oronozkoa, ekainaren 13an.  
**Francisco Javier Irigoien Agirre** eta **M<sup>o</sup> Dolores Iturbide Casas**, Erratzukoak, ekainaren 20an.  
**Jean Michel Gerard** eta **Nathalie Meurvier**, Sarakoak, ekainaren 13an.  
**Angel Irazoki Irazoki** eta **M<sup>o</sup> Teresa Caramazana Aristegi**, Lesaka eta Donostiakoa, ekainaren 14an.  
**Raul Garcia Teran** eta **Paloma Curto Vaquero**, Lesakakoak, ekainaren 20an.

**JAIOTZAK**

**Arkaitz Gamio Salaberri**, Arizkungoa, ekainaren 1ean.  
**Eneko Irigoien Urrutia**, Anizkoa, ekainaren 12an.  
**Vanessa Quintanilla Iparragirre**, Elizondokoa, ekainaren 10ean.  
**Matisa Telletxea Elizondo**, Lesakakoa, ekainaren 17an.  
**Markel Zapiain Lasa**, Berakoa, ekainaren 13an.  
**Julen Telletxea Perugorria**, Etxalarakoa, ekainaren 16an.

**HERIOTZAK**

**M<sup>o</sup> Luisa Iragi Indabere**, Almandozkoa, ekainaren 14an, 85 urte.  
**Manuela Mendiberri Iriarte**, Arizkungoa, ekainaren 15ean, 73 urte.  
**Gilbert Lafont**, Sarakoa, ekainaren 16an, 67 urte.  
**Santiago Rudi Bretos**, Berakoa, ekainaren 24an, 80 urte.  
**Lucia Petrirena Etxebeste**, Arantzakoa, ekainaren 16an, 89 urte.  
**Joaquin Burgete**, Arantzakoa, ekainaren 22an, 64 urte.  
**Julian Hernandez Bergara**, Lesakakoa, ekainaren 25ean, 21 urte.  
**Blas Goizueta Sarratea**, Lesakakoa, ekainaren 25ean, 21 urte.

**ZORIONAK!**  
**Oparia ematen lehenak izan nahi dugu**



Haurra sortu eta berehala etorri Iruñeko Kutxara. Aldatzeko sakitxo hau, haurraren garbitasunerako produktuez bete, emanen dizugu.

**Ez ahanzi familiaren liburuxka!**

**IRUÑEKO KUTXA**

ASCAT



MNA



**AUTO ASEGURUA**

Grupo Asegurador CAIXA CATALUNYA



**PÓLIZA DIESEL**

Aurreztu, oraindik gehiago zure Dieselarekin



**PÓLIZA FAMILY CAR**

Zure familia beti lehendabizikoa delako



**PÓLIZA BÁSICA SUPER**

Zure autoaren balio osoa kubritu, arrisku orotarikoa ordaindu gabe



**PÓLIZA COMPLETA**

Segurtasun guzia. Eta prezio onena

**Zure segurtasunaren traturik pertsonalena**

*Egitazko aseguruak*

**ARIN**  
**ASEGURUAK**

Parrokia 21  
 Tel.-Fax: 948 450266  
 DONEZTEBE

**TELKAR**

**AUTO ESKOLA**

Saskaitz plaza  
 Tel.: 948 580 077  
 ELIZONDO

# Eskualdera etorri dira Literatur eta Antzerki Lehiaketako sari aunitz



Nafarroako Gobernuak urtero-urtero antolatzen duen lehiaketa honetan sariak jaso zituzten ikasleak.

Joan den hilabetearen erdialdera, Javier Marcotegi Hezkuntza eta Kultura kontseilariak eskolarteko literatur lehiaketako sariak banatu zituen Nafarroa osoko ikasleen artean. Urtero erakusten duten maila ona berretsiz, eskualdeko hainbat gaztetxok joan behar izan zuten Iruñera sariak jasotzera. Ez bakarrik literatur arloan, antzerki, dialektologia eta etnologia eta irakurketa lehiaketetan ere trebatu baitira ikasleak. Hona hemen, narrazio modalidadetik abiatuta, gure zonaldeko ikasle sari-

tuak zein izandu diren, banan-banan:

## Literatur lehiaketa

Lehen Hezkuntzako ipuin lehiaketan, **Lorea Sarobe** beratarren "Tigreei laguntzen" lana saritu dute, eta **Iker Zubietaren** "Kuxkur ur lapurra". Poesiaren alorrean, berriz, **Itsaso Lujanbio** goizuetarren "Maite duzun norbaiti" poema aukeratu du epaimahaiak. DBHko 1. eta 2. kursetako sariketari dagokionez, narratibian, **Kontxi Almandozek** idatzitako "San Juan gauean, sua, ura, mitoak"

lana izan da aukeratua. Baita **Aroa Huarte** leizarraren "140 gorpu azaldu dira iparraldeko kostaldean", eta **Iraiti Mitxelenaren** "Zaldien mundua" ipuina. Poesian, bertzalde, **Joseba Olagarainen** "Poesiak" saritu dituzte, **Alaitz Eskuderoren** "Maitasun aitormena" rekin batera. DBHko 3 eta 4. mailakoen artean **Hasier Larretxeak** idatzitako "Suzko dama" nabarmendu dute. Bertzalde, literaturarekin bukatzeko, batxilergoetan **Estibalitz Iparragirrearen** "Zure

begiak bai dira itsasoa", eta **Jasone Iriarteren** "Ardifiziala" lanek jasotzen dute aipamen berezia. Poesian, berriz, **Julen Zelaietaren** "Desioa amets" eta **Eneritz Arozenaren** "Laura, Laura, Laura" izan dira aukeratuak.

## Antzerki lehiaketa

Antzerkian, gidioen originaltasunari emandako saria lortu du Leitzako Eskola Publikoak, "Frantzesen Iartza" obrari esker, eta Lesakako Ikastetxe Publikoak, "Horroskopolandia" ren gidoiagatik jasotzen du aipamen bat, eta

bertze bat jauntzien ikusgarritasunagatik.

## Dialektologia eta etnologia

**Maite Bidarte** lesakarrak 40.000 Pta eskuratu zituen. Bere lanak "Haurtzaro eta Gaztediaren oroimena" zuen izenburuztat.

## Irakurketa eta deklamazio lehiaketa

Zugarramurdi eta Urdazubiko eskola publikoko LHko 5 eta 6. mailako ikasleen "Uxoak" lanari bigarren saria eman diote lehiaketa honetan.

## DATUAK.....

① Aitor Mariezkurrena Beintza-Labaiengo atleta Nafarroako txapelkun suertatu da jabalina jaurtiketan.

② Hogei urte bete berriak ditu eta joan den urtean Nafarroako txapelkun eta Espainiako azpitxapelkun izan zen junior mailan.

③ Bere arreba Idoia ere kirol modalitate honetan Nafarroako onena da. Aurten ez du Nafarroako txapelketan parte hartu Budapest-en zegoelako, Eurokopian parte hartzen.

④ Aste osoa Larrabide kirolariendako erresidentzian ematen du Aitorrek, bertze lautan hogeit bat kirolarirekin batera.

TESTUA:  
AITOR AROZENA

➔ **Aitor MARIEZKURRENA** Beintza-Labaiengo jabalina jaurtitzaila

# “Espainiako txapelketan podiuma lortzeko aukera ikusten dut”

63 metroko jaurtiketa batekin Aitor Mariezkurrenak lehen aldiz Nafarroako jabalina txapelketa nagusia bereganatu zuen. Berak orain arte lortutako marka onena izan zen –lehenkoa 61 metrokoa zen– eta etorkizunean Nafarroako errekorra (67 metro) gainditzeko ere aukerak ikusten ditu. Kirol ibilbidea Donostebeko eskolan hasi zuen Aitorrek. «Lasterka-eta aritzen nintzen. Gero, arreba ikusten nuen jabalinarekin eta berak animatu zidan honetan hastera». Izan ere, kirol honetan aritzeko behar dituen ezaugarriak biltzen dituela usate du, hau da, «abiadura handia eta flexibilitatea izatea». Pamplona Atletico-Scania taldeko kidea da azken lau urteotan labaiendarra. Kompetizioan burubelardi murgilduta dagoenez, guttitan izaten du Beintza-Labaienera joateko aukerarik. «Iraila bitarte igual ezin izanen naiz joan, kirola egin nahi izanez gero Inuñean egon behar baituzu. Halere, ahal dudanean etxera joaten naiz». Horrelakoetan, kirola atzendu nahi izaten badu ere, ez du lagunekin palan aritzeko aukera galtzen. «Normalean ez nauk beste



«Kirol honetan aritzeko abiadura handia eta flexibilitatea izan behar da»

kiroletan aritzen, baina palan gustora».

### «ESPAINIAKO TXAPELKETAN PODIUMAREN BILA JOANEN NAIZ»

Nafarroako txapelketa lortu ondotik, orain Espainiakoan jarriak ditu bere begiak Aitorrek. Uztailaren bukaeran jo-


katuko da Castellonen eta helburuak garbi ditu labaiendarrak. «Lehenbizikoa gelditzea zaila izanen da, jende pila bat izanen da eta markei dagokienez, denak igoaltso gabiltza. Baina, nahiko lanekin, podiuma lortzeko aukerak ikusten ditut, bigarren edo hirugarren gelditzea ere ongi egonen litzateke. Esperantza horrekin joanen naiz». Espainiako errekorra (78 m 78 zm.) hobetzea, ordea, arraz zaila ikusten du. «Ikusi be-

har nola segitzen dudan, baina oraindik urrun dago».

Horretarako egunerotzen du, «bost entrenamendu astean. Urteko entrenamendu guztiak prestatzen dituen prestatzailea daukat». Ezin da erran jabalina jaurtiketa kirol masifikatua denik eta guti dira honetan aritzen direnak. Aitorren erranetan, Larrabiden dauden artean, «nesketan arreba bakarrik ari da eta mutiletan ni eta beste bi».

► «Kompetizioan sartua nagoenez igual iraila bitarte ezin izanen dut herrira joan. Halere, posible dudan guzietan Beintza-Labaienera joaten saiatzen naiz»





Ezkerreko argazkian, beteranoen mailako podiuma: ezker eskuin, Angel Turrillas, Jose Luis Guillen eta Javier Fidalgo. Eskuinekoan, Agustin Garciñuno, Jose Luis Guillen eta Alfredo Lusarreta. Legarra



## Alfredo Lusarreta nagusitu zen Doneztebeko Herri Lasterketan

- Berrehun bat korrikalarik parte hartu zuen proban
- Emakumeen artean Rosa Mari Luenak irabazi zuen

Berrehun korrikalari inguruk parte hartu zuen ekainaren 21ean Erreka elkartek Donezteben antolatutako Herri krosean. Maila nagusian, Mizuno taldeko Alfredo Lusarretak irabazi zuen eta honenbertzez, lehen sariari zegokion 20.000 pezetak eskuratu zituen. Scania taldeko Agustin Garciñunok baino segundu bat lehenago ailegatu en helmugarara. Eskualdeko korrikalarien artean, Gure Txokoako Bautista Telletxea izan zen

lehen, zazpigarren postuan.

Emakumeen artean, Rosa Mari Luena izan zen garaile, Nati Manchoren aitzinetik. Hirugarren postua Errekako Ana Zelaietarentzat izan zen. Doneztebeko taldeko Arantxa Goñi eta Maite Labiano sartu ziren ondotik. Beteranoen artean, Jose Luis Guillen, Javier Fidalgo eta Angel Turrillas sartu ziren lehendabiziko hiru postuetan.

Maila ttikienetan izan zen partehartzerik

haundiena, gehienak eskualdeko korrikalariak. Honela gelditu ziren sailkapenak:

• **Benjaminak (mutikoak):**

- 1.- Pascual Bertiz (Doneztebe)
- 2.- Iñaki Telletxea (Doneztebe)
- 3.- Guillermo Perez (Doneztebe)

• **Benjaminak (neskak):**

- 1.- Saioa Garbisu (Bera)
- 2.- Maider Mindegia (Doneztebe)
- 3.- Jaione Ordoki (Doneztebe)
- 4.- Amaia San Miguel (Doneztebe)

5.- Cristina Mindegia (Doneztebe)

6.- Cristina Zabala (Doneztebe)

• **Alebinak:**

- 1.- Ivan Santesteban (Doneztebe)
- 2.- Gwandal Larke (Bera)
- 3.- Xabier Elejalde (Sunbilla)
- 4.- Javier Bertiz (Doneztebe)
- 5.- Xanti Mindegia (Doneztebe)
- 6.- Joxe M<sup>a</sup> Legazkue (Doneztebe)
- 7.- Damian Iribarren (Doneztebe)
- 8.- Joseba Sarratea (Don.)

## Angel Garatek irabazi zuen Elizondoko I. Herri Lasterketa

- Gartzain Kirol Taldeak antolatu zuen ekainaren 14an

Ekainaren 14an jokatu zen Gartzain Kirol Taldeak lehen aldiz antolatutako Elizondoko Herri Lasterketa. Lasterkalariek 8.400 metroko ibilbidea egin behar zuten, 2.800 metroko zirkuitoari hiru

itzuli eman ondotik.

Maila nagusian, Iruiritako Angel garate izan zen irabazlea, 26'31"ko denborarekin. Narbarreko Mixel Aginaga izan zen bigarrena (27'16") eta Berako Bautista Telletxea hi-

rugarrena (27'44").

Beteranoen mailan, Manolo Otero doneztebarra nagusitu zen (28'17"), Antonio Ukan (29'11") eta Ramon Olaziregiren (29'22") aitzinetik.

Junior mailan Iñaki

Telletxea izan zen garaile (32'59"), Imanol Zubieta (33'20") eta Imanol Otero (36'20") gibelean utzita.

Emakumeen artean, berriz, Julia Bea gailendu zen, ibilbidea 41 minututan eginda.



◆ **Juanjo Urrutiari omenaldia**

Saldiasako pilotariari eskainitako omenaldiaren partidu nagusian, Enrique Galarza eta Unai Apeztegiak 22-10 irabazi zioten Esain eta Otxandorenari. Orozko atzelariak pilota soberaxko galdu zituen eta Galarza V.ak partidu bikaina jokatu zuen.

◆ **Kirolari onenei Nafarroako Gobernuaren harrera**

Joan den ortziralean, ekainak 26, harrera egin zien Nafarroako Gobernuak urte honetako lehendabiziko sei hilabeteetan gehien nabarmendu diren kirolari nafarrei. Ruben Beloki eta Patxi Eugi pilotariekin edo Xota arreto-futbol taldearekin batera, bertan zen Beintza-Labaiengo Idoia Mariezkurrena atleta ere.

◆ **Nafarroako Eskolarteko pilota txapelketa**

Aresoko Mikel Olazabal eta Javi Belauntzararen irabazle suertatu dira Nafarroako Eskolarteko pilota txapelketan, alebin mailan. Denetara zazpi partidu jokatu eta zazpiak irabazi zituzten.

◆ **Bortzirietako futbito txapelketa**

Larunbat honetan jokatu da Bortzirietako futbito txapelketaren finala eta 3. eta 4. posturako norgehiagoka. Hurrengo alean ematen dugu emaitzen berri.

## AGENDA EGUNEZ EGUN

### BESTAK

#### AZPILKUETA

► **Uztailaren 3tik 7ra**  
San Fermin bestak. Xehetasunak 23. orrialdean.

### LESAKA

► **Ekainaren 6tik 11ra**, San Fermin bestak. Xehetasunak 12. orrialdean.

### LEHIAKETAK

#### BIDASOA

► **Bertizko Turismo**  
Partzuergoak Bidasoko Filme Laburren Nazioarteko I. Lehiaketa antolatu du. Kartela egiteko lehiaketa ere martxan paratu dute. Xehetasunak 16. orrialdean.

### GAZTE JOKOAK

#### BERA

► **Apuntatzeko**  
azken eguna izanen da ortziral hau, uztailak 3. lamotenean, arratsaldeko 7etatik 9etara.

### BILKURAK

#### IGANTZI

► **Bestak**  
antolatzeko bilera ortze-gun honetan, uztailak 2, eginen da arratsaldeko 8,30etatik aitzinera. Bilerak idekia da.

### UDAKO ZINEA

#### ELIZONDO

► **Uztailaren 2an** "Nire lagunak onenaren ezkontza".  
► **Uztailaren 7an** "Napoleon".  
► **Uztailaren 9an** "Eguzki jainkoaren bila".  
Merkatu plazan, 10,30etan.



tti-pi-ttapa  
TELEBISTA



## Bagoaz aitzinera

Orain Sunbillara ere ailegatzen da gure seinalea

Dagoeneko bi aste baino gehixeago joan dira TTIPI-TTAPA TELEBISTAK lehen urratsak eman zituenetik. Gaue-roko informatiboari, daki-zuen bezala, laster magazina gehituko diogu, eta poliki-poliki gure programazioa osatzen joanen gara hemen-dik aitzinera. Magazina zer izanen den? Ba, inguru haue-tako kontuei buruzko erre-portaiak, hemengo jendeari egindako elkarrizketak eta gisa horretako saiok.

Momentuz, bete-betean udako ospakizunetan sartzen

ari garen honetan, herriko bestak pantaila ttitikik segitzeko aukera eman nahi dugu gure telebistan. Horrela, hilaren 6an hasiko dira Lesakako Sanferminak, eta TTIPI-TTAPAKO kamarak hantxen izanen dira, gertatzen diren ekitaldi guzietako irudiak eta besta-soinuak harrapatzeko asmoz.

Bertzalde, aipatzekoa da joan den astetik aitzinera Sunbillan ere ikusgai dagoela TTIPI-TTAPA TELEBISTA. Horixe bada, bagoazela aitzinera.

### BASERRIA



#### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 5.000 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 175 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 80-90 pta./kiloa, bizirik.



#### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
  - **Idixkoak:** Pta./kg. Kanal  
Extra .....540  
1.koa .....510  
2.koa .....480
  - **Urruxak:** Pta./kg. Kanal  
Extra .....560  
1.koa .....520  
2.koa .....500
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.
- **Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):  
**Nabarrak:** urruzak 16.000 eta idixkoak 28.000 Pta.  
**Mestizoak:** urruzak 30.000 eta idixkoak 42.000 Pta.
  - **Behi zaharrak:**  
Behi nabar gizona: 370 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 400 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE

### DISKAK



«Aurtengo GORakada»

GOR

lazko udan txozna eta ostatu guzietan jaun eta jabe izan zen bildumaren bigarren alea ateratu du argitara Iruñeko disketxeak. Talde berrien (eta ez hain berrien) promozioa egitea da diska honen helburuetako bat. Kontutan hartu behar da, talde guziek GOREkin diska grabatu berri dutela edo grabatzeko bidean direla. Kaos Etilliko aguraindarrak eta

Zea Mays bilbotarrak ezagun xamar egin dira azken boladan, azken hauek Euskadi Gaztearen maketa lehiaketako lehen saria eraman zutelako. Zer erranik ez Urtz taldeaz. Huajolotean "Insumisión" abestia italiaraz kantatzen duen Arpioni ere aditu daiteke, eta azkenik, "Goazen-goazen" en sortzaileen eskutik, "Hizkuntzaren aldapa" abestia dago entzungai.


### Ez dago oraindik burusoiltzearen kontrako miraririk

Burusoiltzea, kaskasoiltzea, gizaseme nahiz emakume aunitzen kezka izaten da ordua ailegatzan denean. Batzuetan, kausa orokorrek izaten dira, organismoaren baitakoak, baina bertzelako arrazoiak ere badaira. Soluziobide eraginkorrik, ordea, ez da oraindik ezagutzen, nahiz eta gaur den egunean tratamendu kirurgikoen arrakasta aipatzen den.

Ileak ez daude hilik, alderantziz, beti ari dira hazi eta hazi. Hala ere, bada hazte prozesu horretan ileak indarra galdu eta erortzera jotzen duten fase bat. Baina ez da beti erlazionatu behar ilearen erortzea kaskasoiltzearekin. Izan ere, egunero 50 eta 100 ile artean galtzen baitugu normalki. Eta ez da kezkatzeko gauza.

Bertze kontu bat da, ordea, burusoiltzea. Gaur egun ia-ia prozesu fisiologikotzat dugu, batez ere gizasemeei gertatzen zaie. Gehientsuenetan urrats hauek nabaritzen di-

**Egunero 50 eta 100  
ile artean galtzen  
dugu normalki.  
Eta ez da  
kezkatzeko gauza.**



Denetatik erabili da soiltzearen kontra, baina alferrik, ordea.

ra: kopetea somatzen da lehendabizi ile eskasia, eta ezker eta eskuin aldeetan soilunak agertuko dira. Burugaina soilduz joaten da gero eta buru osora zabaltzen da pittaka. Batzutan ile dena galdu daiteke, baina normalean bi aldeetan zerbait gelditu ohida.

Zer egin daitekeen burusoiltzearen kontra? Adituek diotenez, ez dago miraririk gaur egun, denetarik probatu den arren. *Minodixil* famatuak emaitza kaxkarrak eman dituen bezala, ile artifizialaren ezarketa ez da baterre gomendagarria. Ilearen autotrasplantea da (injertoak-eta ongi egin ezker) soiltzearen aurkako irtenbiderik eraginkorra, baina baita garestienetakoa ere.

Zenbaitetan, soilarekin bizitzen ikasi edo ileordea erabiltzea bertze aukerarik ez da izaten. Konplexuak alde batera utzita.

## ERAKUSKETAK

### ELIZONDO

**► Uztailaren 28a artio**, zabalik egonen da Xabier Santxotena baztandarraren eskulturak. Gaia: basoen erotika. Arratseko 7etatik 9etara, Arizkunenea Kultur Etxean.

## SOLASALDIAK

### DONEZTEBE

**► Ekainaren 18an** menopausiari buruzko solasaldia Osasun Zentroan.

## BAZTANDARREN BILTZARRA

### ELIZONDO

**► Uztailaren 19an** Momentuz, Tonbolako sariak eskuratzeko Baztandarren Biltzarraren egoitzatik pastu behar da, ortziraletan, arratsaldeko 7etatik 9etara.

## BERTSO SAIOAK

### LESAKA

**► Uztailaren 10ean** Lesakako Plaza Zaharrean, arratsaldeko 8etan, Xebastian Lizaso, Andoni Egaña, Xabier Silveira, Iñigo Olaetxea, Jon Maia eta Jexux Mari Irazu. Gai jartzaila: Estitxu Arozena.

## GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnoa. deitu behar da

**► Ekainaren 29tik uztailaren 5era** Etxalar, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi, Leitza eta Goizueta.

**► Uztailaren 6tik 12ra** Elizondo (Iturralde), Arantza, Irurtzun eta Doneztebe.

**► Uztailaren 13tik 19ra** Elizondo (Lezaun), Igantzi, Lekunberrri eta Sunbilla.

## LIBURUAK



«Mandelaren Afrika»  
Juanjo OLASAGARRE  
SUSA

Idazle nafar hau Hego Afrikako errepublikan egon zeneko anekdota andana bat biltzen dira liburu honetan. Guda zibila hurbil-hurbil sentitu ondoren Mandela lehendakariaren eskutik hango gatazka baretu egin da pixko bat. Hala ere, Afrikan eman dituen sei hilabete luzeetan, oraindik gori-gori dirauten istilu eta ika-miken berri izan du Olasagarrek, hango

politiko, idazle eta biztanle arrunten ahotik. Hego Afrikan 11 hizkuntza ofizial ezberdin aurkitu ditu, zuriaren komunitatea, beltzena, erlijio desberdinetan sinisten duen jendea... emakumeen jasaten duten zapalketa eta mendebaldeak herri azpigaratuetan duen eragina ere ikusi ahal izan ditu bere begiekin. Guzi horren isla dugu liburu hau.

## ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

## GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

## LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko  
Iparraldetik 00-34-

# 948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

## ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

## LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

## IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

## MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

## ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

## DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

## HARREMANAK

## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU

**BAIONA.** Hiru gelako apartamendua salgai. Jangela eta sukaldia, egongela 1, logela 1 eta garbigela 1. 320.000 Libera. Aukera biziki ona. ☎ 05 59 54 41 27.

## BULDAIN

LEITZAN, bizitzan jartzeko prest dagoen pisua salgai, bere bajearekin. **11.000.000 pezeta**  
☎ 989 232 912

Moldatu beharreko **borda** edo **baserria** erosiko nuke. ☎ 943 360 109 (gaueko 10etatik aurrera).

## ETXEBIZITZAK

### 103 ERRENTAN EMAN

**ETXALAR.** Pisu mobleztatua emanen nuke errentan. ☎ 948 635 060.

**BERA.** Pisu mobleztatua errentan emanen nuke abuztuan. ☎ 948 630 297.

**HENDAIA.** Apartamendua errentan emanen nuke, logela haundia eta bertzea haurrendako, lorategia. Hondartza lehenlerroan. ☎ 970 260 424.

## ETXEBIZITZAK

### 104 ERRENTAN HARTU

**Bera, Lesaka** edo **Etxalar** en pisua erosi edo errentan hartuko nuke. ☎ 948 451 518.

**Batzanaldean** pisu ttiki bat hartuko nuke errentan. ☎ 929 417 005.

**Etxe bat** hartuko nuke errentan Bera, Lesaka, Zugarramurdi edo Etxalarren. Moldaketak egin behar badira ere ez du inporta. ☎ (07 33) 559 478696.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 107 SALDU

**DONEZTEBE.** 150 m<sup>2</sup>ko pabiloia salgai. ☎ 948 451 518. (Jose M<sup>ª</sup>).

Martxan dagoen komertzioa salgai **BERA**n.

56 m<sup>2</sup>ko denda eta 75 m<sup>2</sup>ko gibelaldea. Guztiz ekipatua. **ROMANO DEKORAZIOA**  
Legia, 1 ☎ 948-631137/630941

**ORONAZ.** 200 m<sup>2</sup>ko pabiloia salgai, 57.000 Ptatan metroa. Itxia eta ate metalikoa. ☎ 948 306 502.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 109 ERRENTAN EMAN

**BERA.** 90 m<sup>2</sup>ko eta 40 m<sup>2</sup>ko bi bajera emanen nituzke errentan. Edozein denda edo bulego jartzeko egokiak. Instituto aitzinean. ☎ 948 132 266. (arratseko 8etatik 10etara).

## LURRAK/ORUBEAK

### 113 EROSI

**Bera, Lesaka** edo bere inguruetan lur-saila erosiko

nuke. ☎ 943 633 799 edo 943 625 516 (Xabier).

## ZERBITZUAK

### 201 IGLTSEROAK

Igeltsero lanak eta konponketak egiten dira. ☎ 948 610 722.

## ZERBITZUAK

### 208 BERTZELAKOAK

## KULTURKARI

### Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletokak
- Faktura taloak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

☎ 631188

## LANA

### 302 ESKAINTZAK

Urdazubiko Ikaburua jattetxean lan egiteko neska behar dugu udan. ☎ 948 599 222.

Etxalarko jatetxe batean

lan egiteko sukaldaria behar dugu, aste hondarretan eta besta egunetan. ☎ 948 635 235 / 948 635 038.

## MOTORRA

### 501 SALEROSKETAK

**Toyota Land Cruiser** golpatua eta motorra moldatua salgai. ☎ 948 599 290. (gaueko 9etatik aitzin).

**Traileko** motoa salgai, Yamaha Tenere-650. SS-AL. ☎ 989 827 353.

**Seat Terra** furgoneta salgai. NA-V, egoera onean. 100.000 Pta. ☎ 948 631 078 (gaueko 9etatik aitzin).

**Citroen ZX 2.0i** Volcane salgai. 3 atekoa. NA-AH, egoera onean. ☎ 907 377 735.

**Ford Orion** eta **Alfa Romeo** salgai. 75.000 km. Merkea.. ☎ 948 451 805 (Fernando edo Begoña).

**Peugeot 205 GT 5** atekoa salgai. SS-W. 275.000 Pta. ☎ 943 555 554.

**Ford Fiesta 1.3**, 59.000 kmkoa salgai. ITV pasatua. 5 ate. 575.000 Pta. ☎ 943 555 554.

**Vito 108 D** salgai. 70.000 km, NA-AS. ☎ 929 417 005.

**Nissan Primera 2.0 DGX** salgai, lau atekoa. NA-AS, 15 hilabeteko garantia. ☎ 909 477 299.

## MOTORRA

### 502 TAILERRAK

## MENDAU MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:  
Suzuki 1.000,  
Vitarra 5 atekoa  
Fiat Uno, Fiat Tipo  
Niva Lada  
Suzukiak eta Vitarak

## Audi VW SAMPI ARAGON

Bigarren eskuko kotxeak, furgonetak eta 4x4ak erosten ditugu.

☎ 948 450 354 • DONEZTEBE

## BERABI tailerrak

☎ 948631445 • BERA

Bigarren eskuko autoak

Citroen BX Diesela  
Peugeot 309  
Opel Corsa  
Nissan Micra

## GANIX Tailerrak

Iturlandeta, 9 • ☎ 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA  
ETA ELEKTRIZITATEA  
FIAT Zerbitzua

## ANIMALIAK

### 601 EMATEKO

Bi urteko **Husky** arrazako zakurra emanen nuke. ☎ 948 630 390.

**Bi katakume** arrunt eta bertze bat siames nahasia emanen nituzke gogotik. ☎ 948 631 364.

## ANIMALIAK

### 602 SALEROSKETAK

**Collie eta artzain-alemandar** zakurkumeak salgai, arrazakoak. ☎ 948 504 495.

**Bekada** ehiziko 8 hilabete-ko zakurra salgai. ☎ 948 451 661.

**Oilagor ehizarako** Setter txakurkumeak salgai, modu onean. Hilabete batekoak eta oso politak. ☎ 948 510 265 (eguerditan).

Lau hilabete-ko **5 txekor** salgai, Pirenaika arrazakoak. ☎ 948 604 624.

**Miga** txuri-gorria salgai, 7 hilabete ernari. ☎ 948 387 226 (eguerdi edo arratsen).

Blonda arrazako **bi behi** salgai, beren txekorrek. ☎ 943 552 723.

## DENETARIK

### 701 GALDU-AURKITUAK

**Eguzkitako betaurreko** udinak, Arnet markakoak, galdu ditut Beran, Euskalduna ostatu inguruan. ☎ 948 630 734 (goizeko 10etatik arratsaldeko 7etara).

**Betaurrekoak** galdu ditut Beran. Gris eta beltza arteko montura. Sarituko dugu. ☎ 948 630 217.

Puntozko **txaketa** beixa aurkitu dugu Beran, Errekalde ondoan. ☎ 948 631 499.

**Lastoa** salgai, pakete haundietan. Garia eta garagara. ☎ 907 457 004.

**Kanpin-denda** bat salgai, sei plazakoa, egoera onean. ☎ 948 580 791 (eguerdi eta gauetan).

**Belar-balotadora** salgai, John Deere markakoa. ☎ 948 599 268.

**Belarra igotzeko** motorra eta tresneria salgai. ☎ 948 510204.

10 zakurrentzat balio duen

aluminiozko erremolkea salgai. Trasteak eramateko lekua bereizita du. ☎ 948 514249.

**Arantzako** Xabi Agestari zorionak ekainaren 28an 15 urte bete dituelako. Berako bi nesken partez.

**Arraiozko** Pello Bengoetxeai, zorionak zure "20." urtebetetzean, Iruritako lagun korrikalarien partez. Barkatu zure erregalua us-teldu zaigu eta.

Iturengo **D.P.A.:** zure gorputza eta begiak izugarri politak dira. Muxu bero bat, zuk dakizun haren partez. Ea noiz ikusten garen berri! Aupa sozio! Zure sozinoa.

Zorionak **Ana Oteizari**, ekainaren 20an 14 urte bete dituelako. Bere koadrilaren partetik, muxu bat.

**Ainhoa Magirena** zigarrak ekainaren 8an 14 urte bete ditu. Zorionak koadrilaren partetik. Berandu baina seguru. Aupa *Cocas Cola*.

Lesakako **Carmen Jorajuria Almandozek** urteak bete ditu ekainaren 29an. Zorionak bere familiaren partetik.

**Joana M<sup>a</sup> Igoari:** ekainaren 28an urteak bete dituelako, zorionak eta muxu bat Arantxa, Josu, Asier eta familiaren partetik.

Sunbillako **Marta Petrirenari**, zorionak bere 15. urtebetetzean, uztaileen 1ean. Kontuz zure fans eta lagunekin. Kontuz horrek... zure herriko koadrilaren partetik.



## 365 bideo-zinta behar ditugu ttipi-ttapa telebistan

### URTEKO EGUN BAKOITZEKO BAT.

Eguneroko gertaerak eta berriak zuri eskaintzeko, puntualki, gertatu bezain laster. Zuk erositako bideo-zintarekin posible izanen da guztiona izanen den telebista biziagoa izatea.

### ZINTAZ ZINTA TELEBISTA EGIN.

10.000 pezetako 365 zinta behar ditugu urte osoan gure kamarek irudiak behar bezala har ditzaten.

### ZU ERE PARTAIDE.

Emandako laguntzaren seinale, ttipi-ttapa telebistaren bideo bat emanen dizugu oroigarri gisa.

### NOLA EROSTEN AHAL DA BIDEO-ZINTA?.

Orri honen azpian eskatzen diren datuak idatzi eta gure helbidera bidaliz.

### Bideo-zinta bat erosi nahi dut ttipi-ttapa telebistarentzat.

NORK.....  
Helbidea.....

Erosi nahi diren zinta kopurua..... Zinta(k) erosi ordez, bertzelako dirulaguntza eman nahi da. Kopurua.....

Pagatzeko modua (egin gurutzea dagokion lekuan):

- Txeki bidez. Kopurua:.....  
 Transferentzia bidez. Kopurua:.....

**ttipi-ttapa**

Herriko Etxeko Plaza, 1  
**BERA**

Rural Kutxa 3008 0080 52 0200014973

Tel.: 948 631188  
Faxa: 948 631291

# URTEBETETZEAK

Arguzkiak berreskuratzeke, bidali sobrea zure helbidearekin.

## ALDAKETAK • ALDAKETAK • ALDAKETAK

Hemendik aitzinera argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 6 leiu (210 Pta.) bidali behar da. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Hori bai, arguzkiak TPII-TTAPA TELEBISTAN ere aterako dira.



**Jokin Rodriguez Laretxeak** ekainaren 22an 19 urte bete ditu. Zorionak familiaren partetik.



**Luismi Rebollo Garcia** ekainaren 20an 26 urte bete ditu. Zorionak "inglesito", familiaren partetik.



**Eba Rebollo Garcia** ekainaren 6an 24 urte bete ditu. Zorionak familiaren partetik.



**Ana Trigueros Ortega** 32 urte bete ditu ekainaren 20an. Zorionak zure betiko lagunaren partetik.



Mexikon dagoen **Jose Arriadari**, zorionak ekainaren 23an urteak bete dituelakoz. Ongi pasa emazte eta seme-alabekin. Familiaren partetik.



**Xabier Mada-riaga Iribarren** urrozarrak 8 urte bete ditu ekainaren 14an. Zorionak Unai, Ariz eta gurasoen partetik.



**Aritz Mada-riaga Iribarren** urrozarrak 10 urte bete ditu uztailearen 2an. Zorionak Xabier, Unai eta gurasoen partetik.



**Luis Mir Fagoaga** beratarrek 20 urte bete ditu ekainaren 24an. Zorionak familiaren partetik.



**Jesus Gortari Garaioketxea** irundarrak urteak bete ditu ekainaren 28an. Aunitz urtez Arraizoko bi familien partetik.



**Mikel Erasun Ibarra** irundarrak 10 urte bete ditu ekainaren 28an. Zorionak guraso eta Lesakako familiaren partetik.



**Monika Lasarte Pellejero** beratarrek urteak bete ditu ekainaren 21ean. Zorionak.



**Iratxe Esparza Chueca** 5 urte bete ditu ekainaren 20an. Zorionak Eneko, guraso, Luzio, Xabier eta Ferminaren partetik.



**Aresoko Imanol Baraibar** Arratibelek ekainaren 15ean bete ditu 6 urte. Zorionak Ane eta gurasoen partetik.



**Inaxio Mada-riaga Bergara** aranzarrak uztailearen 3an urteak bete ditu. Aunitz urtez, aita-ama, senide eta 7 iloben partetik.



Hiru! Ez! Lau, lau urte bete ditu **Amaia Asiainek** ekainaren hogeian. Zorionak familiaren partetik. Aunitz urtez, Amaia!



**Josune Alustiza Tolosa** aresoarrak 5 urte bete ditu ekainaren 11an. Zorionak anaia, guraso, aitona, amona eta izaberen partetik.



**Jon Otxoteko Abuin** lesakarrak ekainaren 24an bete ditu 10 urte. Zorionak lehoi txiki! Arreba eta lehengusuaren partetik.



**Belen Sagastibeltza Bengoetxea** leizarrak 28 urte bete ditu ekainaren 23an. Zorionak! Andoitz, Ibai, Beñat eta familia.



**Xabat Zapiain** beratarrek 4 urte bete ditu uztailearen 12an. Aunitz urtez zure guraso, lehengusu eta Markelen partetik.



**Isabel Etxebeste Zayas** lesakarrak 9 urte bete ditu uztailearen 3an. Zorionak.



**Eneko Telletxea** eolartarrak 11 urte beteko ditu uztailearen 17an. Zorionak Aitor eta familiaren partetik.



**Begoña Pika-beak** urteak bete ditu ekainaren 15ean. Ea noiz harzzen duzun nobio polit bat edo monja sartu behar al duzu? Koadrila.



**Miguel Angel Mutuberría eta Edurne Gastesi** leizarrak uztailearen 4an ezkonduko dira. Zorionak Leitzako lagunaren partetik.



**Ainhoa Etxebeste Azkarate** lesakarrak uztailearen 18an 2 urte beteko ditu. Zorionak gurasoen partetik.



**Kristina Etxebeste Azkarate** lesakarrak 6 urte beteko ditu uztailearen 3an. Aunitz urtez, gurasoen partetik.



Zorionak **Lorentxo** aranzarrari, emazte eta bi semeen partetik. Gonbidapena onartuko dugu.



**Goretti** etxalartarrak urteak beteko ditu uztailearen 6an. Zorionak familiaren partetik.



**Joxe Juan** etxalartarrak urteak beteko ditu uztailearen 8an. Zorionak familiaren partetik.



**Regina** etxalartarrak urteak beteko ditu uztailearen 8an. Zorionak familiaren partetik.



Oiartzungo **Joxanek** uztailearen 8an beteko ditu urteak. Zorionak bere familia eta lagunaren partetik.



**Julen Alkain Campok** 2 urte beteko ditu uztailearen 4ean. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



**Mikel Huartek** 22 urte beteko ditu uztailearen 19an. Zorionak "bitxo". Ongi pasa eguna. Gu.



Sunbillako **Itsaso Arrietak** 5 urte beteko ditu uztailearen 28an. Zorionak bere guraso eta ahizparen partetik.



Sunbillako **Irati Arrietak** 6 urte beteko ditu uztailearen 28an. Zorionak bere guraso eta ahizparen partetik.



Sunbillako **Oihane Antuñak** urteak beteko ditu uztailearen 16an. Zorionak bere guraso, Ainar eta familia guziaren partetik.



**Elisabet Sukillbide Martin** elgorri-garrak uztailearen 10ean beteko ditu 12 urte. Zorionak Elgorri-gako koadrilaren partetik.



**Olatz Martin Arregi** doneztebarrak ekainaren 25ean bete du urtea. Zorionak Elgorri-gako koadrilaren partetik.



**Koro Ibarra** elgorri-garrak uztailearen 5ean beteko ditu urteak. Zorionak Elgorri-gako koadrilaren partetik.



**Karmen Altzuri Zozaiak** 83 urte beteko ditu uztailearen 16an. Aunitz urtez amatxi, seme-alaba eta iloben partetik.



**Koro Irazokik** urteak bete ditu. Zorionak Zugarramurdiko sorgiñari.



**Oihan Zugarramurdi NARBARTE** goizuetarrak 6 urte beteko ditu uztailearen 5ean. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



**Juanma eta Beñat Garaier** beratarrek urteak bete dituzte. Juanmak ekainaren 28an eta Beñatek uztailearen 5ean. Zorionak eta muxu haundi bat.



**Oihan Zugarramurdi NARBARTE** goizuetarrak 6 urte beteko ditu uztailearen 5ean. Zorionak familiaren partetik.



**Nerea Mindegia Eletak** 7 urte beteko ditu uztailearen 2an. Zorionak aita, ama, eta bereziki Maide-rreren partetik.



**Jose Luis Etxarte Txoperena** etxalartarrak urteak beteko ditu uztailearen 8an. Zorionak etxeko-eren partetik.



**Emilio Zabala Ezkurria** doneztebarrak 4 urte beteko ditu uztailearen 6an. Zorionak aita, ama eta Elenaren partetik.



Ordoki Industrialdea • ARIZKUN  
Tfnoa. eta faxa: (948) 45 32 59

## 4 arrazoi on PVC jartzeko



Kalefakzioan  
% 35a  
aurrezten  
ahal duzu

### ISOLAMENDUA



Ura eta  
xaboia aski  
da, ez du  
pintura  
beharrik

### MANTENU ERREXA



Ur eta  
haizeaz  
babesteko,  
baita ere  
solnuetatik

### HERMETIKOTASUNA



Denborak  
ez du  
aldarazten

### IRAUNKORTASUNA

*Etxe berri nahiz  
zaharretan. Edozein  
itxiera, balkoi,  
atari...*



**PREZIO BEREZIAK: % 15 ARTEKO DESKONTUAK**



*Betikon kolore ugari  
ditugu, baita egur  
koloreak ere  
(haritza, kaoba,  
pinua etab.).  
Eta edozein  
etxe estilora  
egokitzen direnak.*

# DONEZTEBEKO GASOLINDEGIA

Leitzako errepidea, 49  
Tel.: 948 451679  
Fax: 948 450857

**Gasolindegi berria zabalik Donezteben**



**Gasolindegia**

**Autoaren osagarri eta ordezeko piezak**

**Larunbata eta igandetan ere egun guzia zabalik**

**Bigarren eskuko autoetan aukera zabala**



# Lesakako Udalak

besta zoriontsuak opa dizkizue  
lesakar eta bisitari guziei



*1998ko Sanferminak*